



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

**ITZULTZAILEAREN OHARREN AZTERKETA
KUANTITATIBO ETA KUALITATIBOA
EUSKARAZKO HIRU LITERATUR ITZULPENETAN**

GRADU AMAIERAKO LANA

IKASLEA: Beñat Landa De Marcos

GRADUA: Itzulpengintza eta Interpretazioa

TUTOREA: Miren Ibarluzea Santisteban

SAILA: Euskal Ikasketak eta Hizkuntzalaritza Saila

IKASTURTEA: 2022/2023

Laburpena:

Gradu Amaierako Lan honek euskarazko literatur itzulpenetako itzultzailearen azterketa egitea du xede. Guk dakigunez, gaur egun arte euskal itzulpengintzan ez da itzultzailearen oharrei buruzko lanik osatu, eta gaiari buruzko hurbilketa bat egitea da gure helburua. Aztertuko ditugun lanetako oharren azterketarik ahalik eta xeheena osatzen saiatu gara, eta horrek bide eman digu ondorio zehatzak ateratzeko.

Hori guztia egiteko, lehenik eta behin oharrei buruzko azalpen teorikoak eman ditugu, Genetteren paratestuen teoriaren arabera. Paratestuak zehaztu ditugu lehenik, oharrak orokorrean ondoren, eta itzultzailearen oharrak hirugarrenik. Kokalekua, igorlea, hartzailea... zehazten hasi gara, eta funtzioetara, ohar moten sailkapenetara edota iritzietara egin dugu jauzi segidan.

Lanaren bigarren zatian, hiru hizkuntza ezberdinetatik eta hiru itzultzaile ezberdinek euskarara itzulitako hiru lanetako (*Besteen odola*, *Finzi-Continitarren lorategia* eta *Robinson Crusoe*) oharren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa gauzatu dugu, teoriaren atalean emandako azalpenetan oinarrituta. Bestalde, hiru itzulpen horietako ohar guztiak eta horien ezaugarriak eranskinean jaso ditugu.

Gure jomuga ez da izan itzultzailearen oharrak erabiltzea egokia den ala ez zehaztea. Horren orde, marko teoriko bat osatu dugu, eta hori baliatuta hiru lan ezberdinetako itzultzailearen oharren erabilera sailkatu eta deskribatzeko azterketa bat osatu dugu, oharren kopuruan, luzeran edota zernolakotasunean sakonduta.

Ondorioztatu ahal izan dugunez, itzultzailearen hautu pertsonalek oharren erabilera baldintzatzen dute, sorburu hizkuntzak ez bezala. Itzultzaileak buruan duen irakurle motak ere izan ohi du eraginik. Bestalde, oharrak helburu ezberdinekin erabiltzen direla ikusi dugu, aldeak baitaude itzulpen batetik bestera.

Hitz gakoak:

Paratestuak, itzultzailearen oharrak, euskarazko literatur itzulpenak

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Oharren marko teorikoa, paratestuetatik itzultzailearen oharretaraino	6
2.2. Paratestuak	6
2.3. Oharrak	6
2.4. Itzultzailearen oharrak	7
2.4.1. Itzultzailearen oharren kokalekua	8
2.4.2. Itzultzailearen oharren denbora-ezaugarriak	8
2.4.3. Itzultzailearen oharren igorlea	8
2.4.4. Itzultzailearen oharren hartzailea	9
2.4.5. Itzultzailearen oharren funtzioak.....	9
2.4.6. Itzultzailearen ohar moten sailkapenak	11
2.4.7. Itzultzailearen oharren erabilerari buruzko iritzi, uste eta kritika aniztasuna.....	13
2.4.8. Itzultzailearen oharrak aztertu dituzten orain arteko zenbait lanen berri	14
3. Metodologia	18
4. Aztertuko diren bilduma zein lanen berri eta oharren azterketa kuantitatibo zein kualitatiboa.....	21
4.1. Literatura Unibertsala eta Urrezko Biblioteka bildumak	21
4.2. Aztertuko diren itzultzailearen ohardun lanen berri.....	21
4.3. Ohar kopurua eta maiztasuna.....	22
4.4. Oharren nolakotasuna: luzera eta funtzioei buruz.....	24
4.4.1. Itzultzailearen oharrak: <i>Besteen odola</i>	24
4.4.2. Itzultzailearen oharrak: Fintzi-Continitarren lorategia	25
4.4.3. Itzultzailearen oharrak: <i>Robinson Crusoe</i>	27
5. Eztabaida.....	31
6. Ondorioak	34
7. Bibliografia	36

8. Eranskina	39
--------------------	----

Taulen aurkibidea

1. taula: Jesus Canterak proposatutako itzultzailearen oharren funtzioen sailkapena.....	10
2. taula: Jean Delislek proposatutako itzultzailearen ohar moten sailkapena	12
3. taula: Analisi kualitatiborako taula eredia.....	19
4. taula: Analisi kuantitatiboa - Besteen odola.....	22
5. taula: Analisi kuantitatiboa - Finzi-Continitarren lorategia	23
6. taula: Analisi kuantitatiboa - Robinson Crusoe.....	23
7. taula: Hiru itzulpenen oharreko hitz kopurua.....	24
8. taula: Analisi kualitatiboa - Besteen odola.....	25
9. taula: 4.4.1 1. adibidea	25
10. taula: Analisi kualitatiboa - Finzi-Continitarren lorategia	26
11. taula: 4.4.2. 1. adibidea	26
12. taula: 4.4.2. 2. adibidea	27
13. taula: 4.4.2. 3. adibidea	27
14. taula: Analisi kualitatiboa - Robinson Crusoe.....	28
15. taula: 4.4.3. 1. adibidea	28
16. taula: 4.4.3. 2. adibidea	29
17. taula: 4.4.3. 3. adibidea	29

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honek euskarazko literatur itzulpenetako itzultzailearen oharren azterketa du ardatz nagusi. Itzulpengintzaz hitz egitea egiaz eta gezurraz, leialtasunaz eta traizioaz hitz egitea den heinean (Berman 2001, *apud* Álvarez Jurado 2021), itzultzailearen oharrak horren isla direla esan liteke. Hainbat dira mundu zabalean gai horri buruz osatu diren ikerlanak, eta iritziak ere halakoxeak dira. Batzuen ustez, oharren erabilerak itzultzailearen porrota islatzen du, ez xede testuan haren arrastorik aurkitzea baita egoki. Beste batzuentzat, ordea, itzulpen teknika bat gehiago da eta, are, haiek erabiltzea positibotzat jotzen dute.

Gaur egun arte, eta guk dakigunez bederen, euskal itzulpengintzan ez da itzultzailearen oharrei buruzko lanik osatu, eta aletxo hori jartzen saiatuko gara. Hala ere, gure lanaren helburua itzultzailearen oharrak erabiltzea egokia ala desegokia den zehazte hutsetik harago doa. Itzultzailearen oharren gaineko marko teoriko zehatz bat osatu eta hori baliatuz hiru lan ezberdinetako oharren erabileraren azterketa bat osatzea izango dugu jomuga. Horretarako, itzulpenetako ohar kopurua edota zer nolako ohar motak erabili diren bezalako datuetan sakonduko dugu.

Bi zatitan bereiz dezakegu gure lana. Batetik, itzultzailearen oharrei buruzko marko teorikoa osatuko dugu. Horretarako, paratestuak zer diren azaltzen hasi, oharretara jauzi egin eta itzultzailearen oharren zernolakotasunak (kokalekua, igorlea, hartzailea, etab.) aztertuko ditugu, Genetteren paratestuen teorian oinarrituta. Ondoren, bestelako sailkapen eta bereizketak ikusiko ditugu, Canterarena (1999) edota Delislerena (2003) kasu.

Bestetik, bigarren zatian euskarara itzulitako hiru lanetako oharren azterketa egingo dugu, hasieran landutako teoriaren arabera. Horretarako, Literatura Unibertsala eta Urrezko Biblioteka bildumetako hiru itzulpen hautatu ditugu, *Besteen odola*, *Finzi-Contintarren lorategia* eta *Robinson Crusoe*. Bildumei zein liburuei buruzko datu orokor batzuk eman ostean, lan horietako itzultzaileen oharren analisi kuantitatibo eta kualitatiboa osatuko dugu. Analisi kuantitatiboan ohar kopuruan jarriko dugu arreta, eta analisi kualitatiboan oharren funtzioan.

Amaitzeko, eranskinen atalean aurkeztuko dugu marko teorikoan azaldutako sailkapenen arabera egindako ohar moten bereizketa-taula. Hala ere, azpimarratu nahi dugu lan honen helburua ez dela sailkapenen arteko alderaketa hutsa egitea, euskarazko itzulpenetako itzultzailearen oharren erabilera aztertzea baizik.

2. Oharren marko teorikoa, paratestuetatik itzultzailearen oharretaraino

2.2. Paratestuak

Testu bat nekez agertu ohi da bere horretan soilik, autorearen izena, izenburua edota ilustrazioen gisako gehigarri jakin batzuk gabe. Izaera ugari izan ditzakeen testu osagarrien multzo hori paratestu izendatu zuen Gérard Genettek (2001). Haren arabera, liburu barnean zein kanpoan dauden baliabide eta konbentzio liminalak dira paratestuak, liburuaren eta irakurlearen arteko bitartekari funtzioa betetzen dutenak; besteak beste, izenburuak, azpigituluak, hitzaurreak, eskaintzak, oharrak, epilogoak edota laburpenak (2001). Paratestuak izaera espazialeko elementuak dira, ez baitira kontakizunaren jarioan duten funtzioagatik bereizten, liburuan duten kokapenagatik baizik (Toledano, 2010). Paratestuei esker bilakatzen da testu bat liburu, eta irakurleei, eta, orokorrago, publikoari, modu horretara erakustea ahalbidetzen dute (Genette 1979, *apud* Genette, 2001). Testuaren osagarri multzo hori aztertzeko jarraibide batzuk zehaztu zituen Genettek —kokalekua, denbora-ezaugarriak, igorleak, hartzaileak, etab.—. Lan honetan, oharrak (itzultzailearen oharrak, zehatzago izate aldera) aztertuko ditugu paratestuen teoriaren arabera.

2.3. Oharrak

Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, oharrak «zerbait jakinarazteko, bereziki izkribuz eta, gehienetan, laburki, egiten diren adierazpenak» dira (Euskaltzaindiaren Hiztegia – Bilaketa, d.g.). Adierazpen horiek testuko segmentu zehatz bati dagozkie, eta hedadura aldakorra izan ohi dute, hitz bakarra nahikoa izan baitaiteke (Genette, 2001). Haroon-ek bere oharren definizioan kokalekua ere zehaztu zuen: oharrak orri baten oinean dauden elementu paratestualak dira (2019). Genette ez litzateke definizio horrekin ados egongo, oharrak toki zehatz batean baino gehiagotan ager daitezkeela baitzioen; besteak beste, ertzetan, lerroartean edota kapituluaren zein liburuaren amaieran (2001). Peter Newmark-ek ere oin-ohar hitzaren erabilera saihestu, eta oharrak gehikuntza eta glosa multzoak zirela adierazi zuen *A Textbook of Translation* lanean (1988). Gauzak horrela, argi dago oharrak testu baten bizitzako edozein une eta lekutan ager daitezkeela.

Bestalde, oharrak erabiltzerakoan, erabilerarik hedatuena oharrak prozedura jakin baten bitartez —zenbaki, letra, izartxo...— «deitzea» da, eta ondoren ikur berarekin horiek indexatzea (Genette, 2001).

Erabilerari dagokionez, oharrek funtzio bat baino gehiago izan ditzakete. Batetik, testuan aipatzen den lan baten iturria aipatzeko edota erreferentzia bibliografikoa egiteko balio dute eta, bestetik, informazioa gehitzeko (Eguaras, 2015). Azken finean, zalantzak sor ditzakeen elementuren baten argibideak eman daitezke oharren bidez.

Beraz, oharrak testuaren edozein unetan eta kokaleku jakin batzuetan agertzen diren elementu paratestualak dira. Ikur zehatz batzuen bidez adierazten dira, eta iturriak aipatzeko zein argibideak emateko erabili ohi dira.

2.4. Itzultzailearen oharrak

Jakina den bezala, ohar guztiak ez dira berdinak, eta bereizpen argia egin daiteke ohiko oharren eta itzulpenetan erabiltzen diren oharren artean. Itzultzailearen oharrak itzultzailearen beraren adierazpen zuzen eta esplizituak dira, testuan zehar itzultzaileak narratzaile rola hartzen duen leku bakarrak (Donaire, 1991 *apud* Ribelles, 2004). Itzulpena berridazpena den heinean, itzultzailearen oharrak berridazpen horren aztarnak dira (Toledano, 2013). Itzultzailea bere ohiko ikusezintasunetik, anonimotasunetik ateratzen da, eta xede testuarentzat interesgarria izan daitekeen informazio zehatza ematen du. Hurtado Albirrek, bere itzulpen tekniken sailkapenean, itzultzailearen oharrak aplikazioaren teknikaren barnean sailkatu zituen, sorburu testuan erantsi ezin daitezkeen zehaztapenak gehitzea ahalbidetzen baitu (2001). Itzultzailearen oharren bidez itzultzaileak argibide linguistikoak, kulturalak edo teknikoak txertatu ditzake (Newmark, 1988). Newmarken arabera, argibide linguistikoak hitzen erabilera zabalak azaltzeko erabiltzen dira; kulturalak, berriz, irakurleak sorburu eta xede testuetako kulturen arteko ezberdintasunak kontuan hartzeko; teknikoak, azkenik, liburuaren gaiari buruzko azalpenak emateko (1988). Hala ere, kasu batzuetan aplikazio teknikatik at geratzen dira itzultzailearen oharrak:

Sin embargo, las notas no siempre suponen una ampliación real de texto ya que, en ocasiones, también pueden adoptar una función sustitutiva, cosa que ocurre cuando el traductor cree reconocer una carencia en el texto que no es debida a una omisión voluntaria sino a pérdida de información imputable al cambio cultural o lingüístico que implica el proceso traductor y que no podía prever el autor principal. (Toledano, 2001 *apud* Toledano, 2010, 656 or.).

Jarraian, itzultzailearen oharren ezaugarriak aztertuko ditugu.

2.4.1. Itzultzailearen oharren kokalekua

Ikuspuntu espazial batetik aztertuz gero, argi dago ohiko oharrek eta itzultzailearen oharrek ez dutela inolako ezberdintasunik; orriaren oinean, ertzetan, lerroartean edo kapituluaren zein liburuaren amaieran aurkituko ditugu.

Genettek bi paratestu mota sailkatu zituen kokapenaren arabera, peritestuak eta epitestuak (2001):

- Peritestuak: testu nagusitik kanpo dauden elementuak, hala nola izenburua, hitzaurrea, kredituak, etab., nahiz testuan txertatuta daudenak, hau da, atalen izenburuak edo oinoharrak. Liburukiaren parte izanagatik, testu nagusia ez diren eta liburuari buruzko informazioa ematen dute elementuak lirakeke (Zubillaga, 2013).
- Epitestuak: liburuari buruzko informazioa ematen duten baina liburutik kanpo kokatzen diren mezuak dira, komunikabideen bitartez aurkeztuak (elkarrizketak) edota komunikazio pribatuen bitartez jasoak (gutunak, mezu elektronikoak, etab.) (Zubillaga, 2013).

Bi definizio horiek kontuan hartuta, itzultzailearen oharrak (eta gainerako ohar guztiak) paratestuen sailkapeneko peritestutzat jo daitezke. Testu nagusia ez izanagatik, testuan bertan txertatuta daude, liburukiaren parte dira.

2.4.2. Itzultzailearen oharren denbora-ezaugarriak

Itzultzailearen oharren denbora-ezaugarriak aztertzeko ere Genetteren paratestuen sailkapena baliatuko dugu. Denbora-ezaugarrien kasuan, hiru paratestu mota sailkatu zituen Genettek (2001): aurretiko paratestuak (*paratextos previos*), jatorrizkoak (*paratextos originales*) eta ondorengoak (*paratextos posteriores*). Orokorrean, itzultzailearen oharrak jatorrizko paratestuak dira, itzulpenarekin batera agertzen baitira (Toledano, 2010). Hala ere, gerta daiteke itzulpenaren edizio gehiago atera, eta oharrak gehitzea edota gutxitzea. Kasu horretan, itzultzailearen oharrak ondorengo paratestu bilakatuko lirakeke, ez baitira lehenengo itzulpenarekin batera agertzen (Toledano, 2010).

2.4.3. Itzultzailearen oharren igorlea

Itzultzailearen oharren igorlea zein den argi dago, izenak berak azaltzen baitu. Hala ere, Genettek igorlearen arabera bi paratestu mota ezberdindu zituen (2001): autorearen paratestuak

(*paratextos* autorales) eta paratestu alografikoak (*paratextos alográficos*). Autorearen paratestuak testu originalaren autoreari egozten zaizkio, testua sortu duenari, idazlea edota editorea kasu. Paratestu alografikoak, berriz, hirugarren bitarteko batenak dira, testu originala sortu ez duen norbaitenak, baina autorearen baimenarekin testu originala erabil dezaketenak (Toledano, 2010).

Itzultzailearen oharren kasuan, paratestu alografikotzat jotzen dira, itzultzailearen oharrak idazten dituen ez baita ez testu originalaren egilea ez eta testuko pertsonaia bat ere (Henry, 2000). Itzulitako testuan bakarrik agertzen dira, testu originala beste hizkuntza, kultura, leku, denbora, etab. batera eramatea xede duen testu batean. Itzultzaileari autore originalaren rola esleitzen badiogu, aldiz, orduan bere oharrek autorearen paratestuak bilakatuko lirateke (Toledano, 2013).

Hori dela eta, itzultzailearen oharrak autorearen paratestu edo paratestu alografiko izendatu, itzultzaileari esleitzen zaion rolaren arabera zehaztuko dira.

2.4.4. Itzultzailearen oharren hartzailea

Itzultzailearen oharren hartzaile bat eta bakarra itzulpenaren irakurlea da, ez dago besterik. Hala ere, kontuan hartu beharra dago irakurleak beti duela itzultzailearen oharrak irakurri gabe testua irakurtzen jarraitzeko aukera (Toledano, 2010). Hau zioen Genettek horri buruz:

Es necesario sobre todo observar que, más aún que el prefacio, las notas pueden ser la lectura estatariamente facultativa, y en consecuencia no dirigirse más que a algunos lectores: aquellos a quienes interese tal o cual consideración complementaria, o digresiva, cuyo carácter accesorio justifique precisamente pasar por alto la nota (Genette, 2001, 276 or.).

Itzultzaileak, gainerako autore guztiak bezala, argi eduki behar du irakurle guztiek ez dutela irakurtzeko gaitasun, jakintza maila edo iritzi bat osatzeko maila bera. Ondorioz, itzultzaile batek itzultzailearen oharrak erabiltzean, ohikoa izan daiteke irakurle jakin batzuegana soilik zuzentzea, informazio gehigarri hori gustura jasoko duten irakurle horiengana alegia (Toledano, 2010).

2.4.5. Itzultzailearen oharren funtzioak

Aipatu bezala, itzultzailearen oharren bidez itzultzaileak bere ahotsa entzunarazten du, eta zenbait kasutan sorburu testuarekin duen desadostasuna ikusarazi ere bai. Itzultzailearen oharrek izan ditzaketen funtzioek testu oso bat baldintza dezakete, irakurmenaren jarioan eragin

handia izan baitezakete. Azken batean, itzultzailearen oharrak erabiltzearen helburua sorburu testuko kulturaren berri ematea da, kultura horren alderdi ezezaguna ezagutaraztea, eta esan gabe geratu izan daitekeena esatea (Cordonnier, 1995 *apud* Ribelles, 2004).

Toledanok, esaterako, funtzioen arabera bi ohar mota bereizi zituen (2013): ohar argitzaileak (*explanatory notes*) eta ohar diskurtsiboak (*discursive notes*). Ohar argitzaileek jatorrizko testuaren ulermena bermatzeko eta sorburu testuaren efektu guztiak mantentzeko beharrezkoa den informazio osagarria ematen dute. Hau da, beraien funtzioa irakurleari testua konprenitzen laguntzea da. Ez dute testuan inplizituki dagoen edota irakurleak aldeztatik jakin dezakeen ezer gehitzen, eta sorburu eta xede hizkuntzen arteko talkak zein kultur baliokideak itzultzean gerta daitezkeen informazio galerak saihesten dituzte. Ohar argitzaileetan argibide filologikoak, deskripzio historikoak, etab. agertu ohi dira (Toledano, 2010).

Ohar diskurtsiboak, aldiz, iruzkin modukoak dira, pasarte edo terminoren bati buruz zerbait gehigarria esatea, zerbait gomendatzea, balorazioak egitea, esaldiak zuzentzea edota itzultzaileak bere iritzi propioa ematea kasu. Ohar diskurtsiboen objektibotasuna zalantzarria da oso, irakurketa oztopatzen baitute, eta idazlearen eta irakurlearen arteko hartu-emana zailtzen (Toledano, 2010). Azken finean, ohar mota horien bidez itzultzaileak ikusgaitasun handiagoko estatusa lortzen du, eta hein batean istorioaren kontalari izatera pasatzen da.

Dena dela, itzultzailearen oharren funtzioak ez dira ohar argitzaile eta diskurtsiboetara soilik mugatzen. Jesus Canterak, adibidez, itzultzailearen oharren hamasei funtzio zerrendatu zituen (1999):

1. taula: Jesus Canterak proposatutako itzultzailearen oharren funtzioen sailkapena

Funtzioa	Adibidea	Adibidearen iturria
1	Termino edo esaera bat azaltzea	Kantziler – Zenbait herrialdetan Kanpo Arazoetako ministro, Austria eta Alemanian Lehen ministro.
2	Gai bati buruzko terminologia zehatza azaltzea	EAEko hainbat kargu politiko edo erakunde: Lehendakari, ararteko, Legebiltzar...
3	Izen propioak azaltzea	Kolonizazio aro aurreko Afrikako hainbat herrialde: Gaur egungo Burkina Faso, iraganean Alto Volta izan zen.
4	Deiturak azaltzea	Easo Ederra – Donostia

5	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	A zer pareta, karakola eta bareta!: Ez litzateke hitzez hitz itzuliko, beste baliokideren bat bilatu eta oharrean adieraziko litzateke.	Adibidea gurea da
6	Sorburu eta xede hizkuntzetako esaera edo lokuzio batek hitz ezberdinak dituela azaltzea	Gaztelaniazko <i>martes y trece</i> , ingelesez <i>Friday 13th</i>	Cantera, 1999, 42. or.
7	Esaera batek izan dezakeen irregulartasun bat azaltzea	Gaztelaniazko <i>Por Santa Lucía menguan las noches y crecen los días</i> , galizieraz <i>A Santa Lucía medra a noite e mingua o día</i> .	Cantera, 1999, 43. or.
8	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	<i>Ingenio</i> . Jatorrizkoan era honetara.	Ibarzabal, 1997, 53. or.
9	Biraoak azaltzea	Ardiak bezala – Ardiak denak elkarri segika joaten direla ulertzen ez duen kultura batera itzultzeko.	Adibidea gurea da
10	Siglak azaltzea	AEK – Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea LAB – Langile Abertzaleen Batzordeak	Adibidea gurea da
11	Itzuli ezin den hitz edo espresio bat azaltzea	Bertsolaritza, ikastola, auzolana... Hitzok bere horretan utziko lirateke, eta ohar baten bidez bere esanahia argitu.	Adibidea gurea da
12	Txiste edo hitz-joko bat azaltzea	Euskararen kasuan, abizen luzeekin egin daitezkeen jolasak; adb. Iturriberrigoikoerrotaberrik oetxea	Adibidea gurea da
13	Kultura mugimendu baten berri ematea	Ez Dok Amairu – Euskal Herriko kultur mugimendu abangoardista.	Adibidea gurea da
14	Gertaera historiko bat azaltzea	Orreagako Gudua – 778. urteko baskoien eta frankoen arteko gudua.	Adibidea gurea da
15	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	«Zuen eta gure artean leize handi bat dago». Lukasen ebangelioa, 16, 26.	Ibarzabal, 1997, 161. or.
16	Sorburu testuko akats bat zuzentzea	Sorburu testuak Bidasoa ibaia Miarritzen itsasoratzen dela esatea eta itzultzaileak hori zuzentzea	Adibidea gurea da

2.4.6. Itzultzailearen ohar moten sailkapenak

Bat baino gehiago dira itzultzailearen ohar motak ezberdintzeko egin diren sailkapenak. Lehenago aipatu diren Toledanoren ohar argitzaileak eta ohar diskurtsiboak adibide bat izan

daitezke (2010), Canteraren hamasei funtzio ezberdin horiek bezala (1999). Mumtaz Kaya-k (2003) egindako sailkapenean bost itzultzailearen ohar mota bereiz daitezke:

- Itzulpenean garatu ezin den elementu edo pasarte bat azaltzen duten oharrak.
- Sorburu testuaren kulturako elementu bat azaltzeko oharrak.
- Domestikazio teknikaren bidez itzulitako hitz bati buruzko oharrak.
- Aipuak eta erreferentzia bibliografikoak egiteko oharrak.
- Idazlearen estiloari leial izateko oharrak.

Delislek, berriz, hamabost ohar-motatako sailkapena egin zuen (2003):

2. taula: Jean Delislek proposatutako itzultzailearen ohar moten sailkapena

Ohar mota	Azalpena
Ohar argitzailea (<i>Note signalétique</i>)	Sorburu hizkuntzako hitz edo esamolde bat xede hizkuntzan azaltzeko.
Itzulezintasun oharra (<i>Note d'intraduisibilité</i>)	Itzultzaileak sorburu testuko elementu bat itzuli ezin izan duela adierazteko.
Ohar linguistikoa (<i>Note linguistique</i>)	Itzultzaileak sorburu edota xede testuko hitz edo espresio bati buruzko iruzkin linguistikoa bat egiteko.
Itzulpen oharra (<i>Note de traduction</i>)	Jada itzulita dagoen hitz edo esaldi bati ohar bat gehitzea. Hitz bat itzuli gabe utzi eta bere azalpena.
Ohar esplikatiboa (<i>La note explicative</i>)	Irakurleentzat ezezaguna izan daitekeen informazioa azaltzeko. Aipamen bat esplizitatzeko. Kultur- edo literatur-erreferentzia bat azaltzeko. Anbiguotasunak azaltzeko. Sigla, akronimo, laburtzapen edo slogan baten esanahia argitzeko. Izen propioen esanahia argitzeko. Pisu, altuera edo moneten baliokideak emateko.
Definizio-oharra (<i>Note définition</i>)	Itzultzaileak ez itzultzea erabaki duen hitz edo esaldi bat definitzeko.
Ohar analogikoa (<i>Note analogique</i>)	Irakurlearentzat ezaguna izan daitekeen errealitate batekin lotura egiteko.
Ohar pedagogikoa (<i>Note pédagogique</i>)	Sorburu testuko hizkuntza ikasteko edo atzerriko obrak ezagutarazteko.
Ohar entziklopedikoa (<i>Note encyclopédique</i>)	Itzultzaileek beren ikerketen emaitzak aurkezteko.
Adituentzako oharra (<i>Note érudite</i>)	Informazio gehigarri espezializatua eskaintzeko.
Iruzkin-oharra (<i>Note commentaire</i>)	Itzulpenari buruzko oharrak egiteko.
Gomendio oharra (<i>Note «conseil au lecteur»</i>)	Irakurleari gomendioak emateko (irakurgai osagarriak, adb.).
Militantzia oharra (<i>Note militante</i>)	Ideologia baten sustapena egiteko.
Laburpen oharra (<i>Note résumé</i>)	Jatorrizko testuko pasarte bat hitzez hitz itzuli gabe erreproduzitzeko.
Esplizitazio oharra (<i>Note explicitation</i>)	Sorburu testuaren autorearen ideiak garatzeko.

2.4.7. Itzultzailearen oharren erabilerari buruzko iritzi, uste eta kritika aniztasuna

Itzultzailearen oharren ezaugarriak behinena aztertuta, horiek ahalik eta ongien erabiltzeko jarraibideak aztertuko dira jarraian. Itzultzailearen oharrak erabiltzerakoan, itzultzaile batek beti pentsatu behar du irakurlearentzat guztiz ezezaguna direla xede hizkuntza eta haren inguruko kultur erreferentziak (Toledano, 2013). Horregatik eskaini behar dizkio itzultzaileak irakurleari zenbait gako, horien bidez testua errazago jarraituko baitu, elementu gehiago ulertuko baititu (Ribelles, 2004).

Hala ere, oroz gain, kontuan hartu beharra dago itzultzailearen oharrak erabiltzea ez dagoela beti itzultzailearen esku, bestelako faktore batzuek ere zeresana izan dezakete:

The presence (or absence) of notes as well as their use and function are not totally the result of the translator's individual free choice, instead it is in part dictated a priori to the translator by translation policy and norms. For instance, using footnotes to supply additional information on culturally bound terms might be expected in critical editions of canonical literature that are being published by prestigious publishing houses, but never in children's literature (Toledano, 2013, 151 or.).

Toledanok esaten dituen horiek esaten zituen urte batzuk lehenago Canterak ere: testu mota da itzultzailearen oharrak erabili ala ez aintzakotzat hartzeko ezaugarrietako bat, ez baita gauza bera irakurlea haur bat edo gai batean aditua den norbait izatea. Horrez gain, argitaletxe bakoitzak norbere arauak eta estiloak izango ditu itzultzailearen oharren erabilerari dagokionez (Cantera, 1999).

Aitzitik, Sanchez Ortizek bi irakurle mota sailkatu zituen (2015): batetik, itzultzailearen oharrak itzultzaileak testua bera edo testuko pasarte zein espresio jakin bat itzultzeko izan duen zailtasunaren erakusle direla pentsatzen dutenak; bestetik, irakurleek testua osoki uler dezaten erabiltzen diren tresna erabilgarri eta saihestezinak direla uste dutenak.

Dena dela, itzultzailearen oharrez baliazterakoan, oharren luzerak mugatuta egon behar du, eta testuan dauden ohar guztien zerrenda bat egotea ere komeni da, orri bereizi batean; bestela, eraginkor guztia galdu eta irakurlearentzat eragozpen bilakatzen dira (Newmark, 1988). Literatur testuetan, esaterako, itzultzailearen oharrak oso tentuz erabili behar dira, informazioa asko emateak balio estetikoari kalte egiten baitiezaioke (Gromová, 2009 *apud* Ukušová, 2021); irakurketa prozesua gehiegi mozten dute (Palkovicová, 2015 *apud* Ukušová, 2021). Ribelles haratago doa, eta poesia zein nobelak itzultzailearen oharrez betetzeak irakurketa izorratzen

duela aipatu zuen, irakurketa moteltzen baitu (2004). Beste kasu batzuetan, itzultzailearen oharren erabilerak itzultzailearen xede testuko behar bezalako baliokide bat eskaintzeko ezintasuna adierazten du (Cantera, 1999). Hein batean, sorburu testuaren eta itzultzailearen arteko «kontratu morala» errespetatzean datza ohar horien erabilera egokiak, desegoki baliatzea itzultzailearen ezintasunaren isla baita (Henry, 2000).

Hala eta guztiz ere, itzultzailearen oharrak erabiltzeak positibotik ere badu. Arestian aipatu bezala, irakurleak interpretazio pertsonalak egitea ekidin dezakete. Hori gutxi balitz, itzulpena zehatza eta egokia bada ere, zenbait kasutan itzultzailearen oharren erabilera interesgarria izan daiteke jakintza gehigarri bat eskaintzeko, itzulpenaren irakurlea ziurrenik kultura ezberdin batekoa dela kontuan hartuta (Cantera, 1999).

Gauzak horrela, irakurketaren balio estetikoak mantendu nahi izanez gero, ez luke zentzurik itzultzailearen oharrak erabiltzeak baina, aldi berean, egokia izan daiteke zalantzak sor ditzaketen sorburu testuko zenbait elementu aipatzea (Ukušová, 2021). Hori kontuan hartuta, Ukušová berak itzultzailearen oharren eraginkortasuna aztertzeko hiru irizpide finkatu zituen (2021):

- Itzultzailearen oharren kopurua eta luzera
- Itzultzailearen oharren funtzioa¹
- Itzultzeko zailak izan daitezkeen sorburu testuko espresioen azalpena

Orokorrean, itzultzailearen oharren gehiegizko erabilerak ez luke zentzurik, baina itzultzaileak sorburu testuko elementu guztiak ahalik eta ondoen eta zehatzen itzultzeko esfortzua erakusten dute, eta zenbait kasuan irakurlearentzat baliagarriak izan daitezkeen aipuen bidez itzulpena bera aberasten dute (Cantera, 1999).

2.4.8. Itzultzailearen oharrak aztertu dituzten orain arteko zenbait lanen berri

Itzultzailearen oharren azterketa euskal itzulpengintzan gaur egun arte oharkabean igaro bada ere, nazioartean bat baino gehiago dira alor horri eskaini zaizkion azterketak. Atal honetan horietako batzuk komentatuko ditugu, bost zehazki, bakoitzaren aztergaia, helburuak zein ondorioak alderatuta.

¹ Toledanoren bi funtzioak jarraitu zituen Ukušová, ohar argitzaile eta diskurtsiboak.

Esaterako, Jana Ukušová *Anne of Green Gables* nobelaren ingelesetik eslovakierarako 2003ko eta 2019ko itzulpenetako oharrak aztertu zituen *Translator's Footnotes as an (In)Effective Translation Strategy* lanean (2021). Horretarako, bi itzulpen horien oharren analisi kuantitatibo zein kualitatiboa egin zuen, oharren erabileraren egokitasuna aztertzea baitzuen helburu. Azterketa hori egiteko, halaber, oharren egokitasunerako irizpide batzuk finkatu zituen: oharren luzera eta kopurua, oharren funtzioa (Toledanoren bi funtzioen arabera, funtzio argitzailea eta diskurtsiboa hain zuen) eta itzultzeko zailak izan daitezkeen sorburu testuko espresioen azalpena. Lanaren amaieran, irizpide horien araberrako ondorioak atera zituen. Besteak beste, oharren aldakortasuna azpimarratu zuen, itzulpen batetik besterako oharren kopuruan, luzeran edota funtzioetan. Horrez gain, orokorrean oharren erabilera desegokia izan zela adierazi zuen, irakurketa oztopatzen zutela argudiatuta.

Testu literarioekin jarraituta, *Gramatica della fantasia. Introduzione all'arte di inventare storie* italierazko testuaren gaztelaniazko bost itzulpenetako itzultzaileen oharretan murgildu zen María Begoña Arbulu, *La visibilidad del traductor: las notas al pie de página en las traducciones españolas de la "Grammatica della fantasia" de Gianni Rodari* lanean (2020). Kasu horretan, beraz, testu beraren bi itzulpen alderatu orde, bost landu zituen. Honako hau izan zen bere helburua: bost itzulpen horietako oharren funtzioak zehaztea, noiz eta zergatik erabili ziren jakitea eta haien eraginkortasuna (itzultzailearentzat zein irakurlearentzat) aztertzea. Horretarako, Donaireren (1991) eta Toledanoren (2010) sailkapenak erabili zituen. Lehenengoaren bidez oharren erabilera aztertu zuen, Donaireren bereizketa jarraituta: adituentzako oharrak, xede hizkuntzako kulturako jendearentzat ulertezinak izango liratekeen elementuen azalpenak eta itzulpen prozesuan galtzen diren konnotazio linguistikoak. Bigarrenarekin, aldiz, oharren funtzioa aztertu zuen, funtzio argitzailea edo diskurtsiboa hain zuzen. Ondorio bezala, kopuru aldetik, adituentzako oharren nagusitasuna azpimarratu zuen, baina testua irakurtzeko behar-beharrezkoak ez zirela adierazi zuen. Bestalde, funtzioei so eginda, aztertutako bost itzulpenetan aniztasun handia zegoela ondorioztatu zuen.

Hala ere, itzultzailearen oharrek aztergai izan dituzten lan guztiek ez dituzte testu literarioak aztertu. Horren adibide da Manuela Álvarez Juradoren *En torno al prólogo y las notas de la traducción al español del "Codex, Pharmacopée française"* (2021). XIX. mendean frantsesetik gaztelaniara itzulitako farmakopea bat jarri zen jomugan. Lan horren helburua ez zen itzultzailearen oharren azterketa sakon bat egitea, paratestuen bidez itzultzaileek lor dezaketen ikusgarritasuna eztabaidatzea baizik. Horrenbestez, farmakopearen itzulpenean agertzen diren oharren datu kuantitatibo batzuk eman, eta itzultzaileak itzulpena naturala izatea lortu duela

argudiatu zuen. Hau da, farmakopea hura bezalako testuekin itzultzailearen oharrak erabilgarriak izan daitezkeela.

Zientzia eta farmazia lantzen duten itzulpenak ez ezik, erlijio esparruko testuetako itzultzailearen oharrak ere aztertu izan dira, Ahmed Kamalen *Las notas al pie de página en la traducción del Corán* kasu (2011). Kamalek Koranaren zazpi itzulpen hautatu zituen, itzultzaile ezberdinek eginak guztiak. Bereizgarri moduan, erlijio ezberdinetako itzultzaileen oharrak aztertu zituen (kristauak, musulmanak, judutarrak eta ateoak). Lanaren helburua zazpi itzultzaile horien oharrak konparatzea zen, kontuan hartuta itzultzaile bakoitzaren erlijioak eragina izango zuela itzultzaileen oharretan bertan. Ondorioetan, fede ezberdinak izateak itzulpen bateko oharren erabilera zenbaiteraino alda dezakeen islatu zuen. Adibidez, musulmanek Korana Jainkoaren hitza balitz bezala zaintzen zuten, baina besteek hori asmakizuntzat tratatzen zuten. Horren harira, kredo ezberdin bateko testuak itzultzerakoan errespetua eskatuz amaitu zuen.

Hala ere, itzultzailearen oharren ikerketa egiterakoan, ikertzaileek ez dituzte testu jakin baten hainbat itzulpen landu edota erkatu. Norma Ribellesen *Las notas a pie de página en las versiones al español de las novelas de Patrick Modiano: «la honte du traducteur»?* lanak (2004) autore zehatz baten testuen itzulpenetako oharrak aztertu zituen, Patrick Modianoren testuetako oharrak hain zuzen. Esan beharra dago Modianok testu literarioak idazten zituela, eta, beraz, zehatzago izatearren, genero literarioko autore baten testuen itzulpenetako oharrak izan zituela hizpide. Ribellesek, Arbuluk bezala, Donaireren (1991) sailkapena erabili zuen. Hala ere, Ribellesen asmoa ez zen ondorio kuantitatiboak lortzea, itzulpen horietako oharren errepasso orokor bat egitea baizik. Horretarako, Donaireren sailkapeneko elementu bakoitzaren adibideak plazaratu zituen (adituentzako oharrak, xede hizkuntzako kulturako jendearentzat ulertezinak izango liratekeen elementuen azalpenak eta itzulpen prozesuan galtzen diren konnotazio linguistikoak). Itzultzailearen oharren bidez irakurketarako gakoak ahalbidetzen direla defendatu zuen, eta ikuspuntu linguistikotik erabat baliagarriak izan daitezkeela.

Errepaso hori eginda, argi ikus daiteke denetarikoa testu motak landu izan direla itzultzailearen oharrak aztertzerakoan. Nahiz eta kopuru aldetik ohikoenak testu literarioak izan, zientzia zein erlijio gaietakoak ere jorratu izan dira, besteak beste. Horrez gain, ikuspuntu ezberdinetatik begiratu izan zaie itzultzailearen oharrei, Ribellesen lanarekin (2004) ikus daitekeen bezala. Lan jakin bat jorratu beharrean, idazle baten lanen itzulpenak aztertu zituen. Bestalde, Ukušováková (2021) bere irizpide propioak osatu eta haiek jarraitu zituen itzulpeneko oharrak

aztertzeko. Arbuluk (2020) eta Ribellesek (2004), ostera, jada egindako sailkapen baten bidez osatu dute haien ikerketa. Álvarez Jurado (2021), aldiz, azterketa kuantitatiboa egitera mugatu zen eta, azkenik, Kamali dagokionez (2011), itzultzailearen oharrek erlijioarekiko zuten zerikusia aztertu zuen.

3. Metodologia

Lan honi dagokionez, helburu nagusia euskarazko itzulpenetako itzultzailearen oharrei buruzko hurbilpen bat egitea da. Horretarako, orain arte itzultzailearen oharrei buruz egin diren lanetan oinarrituko gara. Hala ere, arestian aipatu bezala, eta guk dakigunez bederen, oraindik ez da euskarazko itzulpenetako oharren gaineko lanik egin eta, beraz, ezingo dugu euskarara itzulitako lanetako oharrei buruzko daturik erabili gureekin alderatzeko. Alabaina, lehenago aipatu ditugun lanek emandako datuak baliagarri izango zaizkigu gure lehen hurbilpena egin ahal izateko.

Lan honek EIZIEren (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte) Literatura Unibertsala bildumako Urrezko Bibliotekako hiru itzulpenen oharrak alderatuko ditu. Gehiago zehaztearren, ingelesetik, frantsesetik eta italieratik euskaratutako hiru lan alderatuko ditugu, *Besteen odola*, *Finzi-Continitarren lorategia eta Robinson Crusoe*, hurrenez hurren. Hiru hizkuntza ezberdinetatik eta hiru itzultzaile ezberdinek itzulitako testuak lantzeak bide emango digu erkaketa bat baino gehiago egiteko; hizkuntza-konbinazio ezberdinetan oharrekin egon daitezkeen joerak alderatu ahalko ditugu, eta liburu horien itzultzaileek oharrekin egiten dituzten erabilerak ere bai. Horrez gain, Urrezko Bibliotekako itzulpen guztiak berrargitaratuak direnez, hiru itzulpen horien paperezko bi argitalpenen artean oharren erabilera zenbateraino aldatu den aztertuko dugu. Kontuan hartu beharra dago Literatura Unibertsala bildumako lanak online ere argitaratu direla, armiarma.eus webgunean. Alabaina, lan honetan paperezko bertsioak soilik izango ditugu hizpide.

Gauzak horrela, itzulpen horietako itzultzaileen oharren analisi kuantitatiboa egingo da batetik, eta kualitatiboa bestetik.

Analisi kuantitatiboan, zifrak erauziko ditugu taulen bidez. Horrek itzulpen bakoitzean zenbat ohar erabili diren, itzultzaileek zenbateko maiztasunarekin baliatu dituzten jakitea ahalbidetuko digu. Horretarako, ohar bat zenbat zenbat orririk behin agertzen den kalkulatuko dugu.

Arlo kualitatiboa lantzeko, aldiz, orain arte lanean zehar landu ditugun hainbat sailkapen erabiliko ditugu. Batetik, Peter Newmarken (1988) proposamena jarraituz, landuko ditugun itzulpenetako oharrek argibide teknikoak, linguistikoak ala kulturalak ematen dituzten aztertuko dugu. Bestetik, Jesus Canterak (1999) zerrendatu zituen oharren 16 funtzioetako (ikus 4.5. atala) zein betetzen duten ezagutuko dugu. Horrez gain, Delisleren sailkapenera (2003) ere

joko dugu, eta guk aztertuko ditugun itzulpenetako oharrak haren 15 ohar motetako (ikus 4.6. atala) zein diren jakingo dugu.

Hiru sailkapen horiei esker ikuspuntu ezberdinetatik landu ahalko ditugu *Besteen odola*, *Finzi-Continitarren lorategia* eta *Robinson Crusoe* lanen euskarazko itzulpenetako oharrak. Newmarken bereizketak itzultzaileen oharren ikuspegi orokor bat lortzen lagunduko digu, Canterak proposatutako hamasei funtzioei esker oharrak zein helbururekin erabili diren ikusiko dugu eta Delisleren sailkapenarekin ohar-moten aniztasuna aztertuko dugu. Horrenbestez, ez dugu lan honen atal teorikoan aurkeztu diren beste sailkapenak erabiliko (Mumtaz Kayarena kasu), hiru horiek beste guztiak barne hartzen dituztela baiteritzogu, eta horregatik hartuko ditugu horiek erreferentziatzat.

Bestalde, aipatu berri ditugun analisi horiek egin ondoren, atal teorikoan aurreratu ditugun hainbat alderdi komentatuko ditugu. Horretarako, Ukušová (2021) proposatzen dituen hiru irizpideetatik bi erabiliko ditugu, oharren luzera eta kopurua eta oharren funtzioa². Hirugarren funtzioa —itzultzeko zailak izan daitezkeen sorburu testuko espresioen azalpena— ez dugu guztiz beharrezkotzat jotzen, irizpide bat baino gehiago ohar baten funtzioa edo ohar mota bat iruditzen baitzaigu, eta horiek Cantera (1999) edota Delisleren (2003) sailkapenen bidez aztertuko baititugu. Horrenbestez, irizpide horien azterketa osatzeak itzultzaileen oharren egokitasunari buruzko balorazioak egiten lagunduko digu.

Aipatutako hori guztia egiteko, taulak eta eskemak erabiliko ditugu, betiere itzulpenetako oharren adibideak eskuartean ditugula. Hona hemen zer nolako taula mota erabiliko dugun:

3. taula: Analisi kualitatiborako taula eredu³

Oharra	Newmark: Argibide teknikoak, kulturalak edo linguistikoak ematen ditu?	Cantera: Zein funtzio betetzen du haren sailkapenaren arabera?	Delisle: Haren sailkapeneko zein ohar mota da?
1			

Aztertutako hiru testuetako itzultzaileen oharren datu kuantitatibo nahiz kualitatiboak eskuartean, konparaketak egin ahal izango ditugu, bai Urrezko Bildumako lan horien artean (hizkuntzaren arabera, autoreen arabera...), eta baita 4.8 atalean aipatutako nazioartean

² Toledanoren sailkapeneko (2010) oharren funtzioak erabili zituen Ukušová, ohar argitzaileak eta ohar diskurtsiboak.

³ Ikusi taula beteta eranskinean.

itzultzailearen oharrei buruz egin diren beste lan batzuekin; horrek ahalbidetuko digu ondorioen atala osatzen.

4. Aztertuko diren bilduma zein lanen berri eta oharren azterketa kuantitatibo zein kualitatiboa

4.1. Literatura Unibertsala eta Urrezko Biblioteka bildumak

Eusko Jaurlaritzak eta EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak egindako hitzarmenaren fruitua da *Literatura Unibertsala* bilduma. Bildumak hainbat xede ditu; besteak beste, euskararen normalizazio bidean itzulpengintza onurak ezagutaraztea, itzulpengintza zein interpretazio arloko profesionalen sustapena eta euskarazko testuetako munduan barreneko literatura klasikoaren gabezia nabarmenari aurre egitea (Ibarluzea, 2013).

Bildumak hiru aro izan ditu: Lehenbizikoa, 1990 eta 2002 bitarte, Ibaizabal argitaletxeak argitaratu zituen obrak; bigarrena 2002 eta 2010 bitarte, Elkar eta Alberdania argitaletxeek elkarlanean argitaratu zituzten obrak; eta hirugarrena, 2012 eta gaur egun bitartekoa, Erein eta Igela argitaletxeek elkarlanean argitaratzen dituzte bildumako obrak (*Literatura Unibertsala*, d.g.).

2010. urtean jarri zuen martxan EIZIEk Urrezko Biblioteka bilduma. Ikusirik Literatura Unibertsala bildumako lehen 100 izenburuak agorturik zeudela eta liburu dendetan eskuraezinak zirela, liburu horiek berrargitaratzeko plangintza diseinatu zuen EIZIEk berak (*Literatura Unibertsala*, d.g.). Literatura Unibertsaleko 20 liburu ezberdin hautatu zituzten, hurrengo urteetan berrargitaratzeko, honako irizpide hauen baitan: obren garrantzia, irakaskuntzan erabilgarriak izatea eta gazteentzako erakargarritasuna (Ibarluzea, 2013). 20 liburu horietako hiru lanen itzultzailearen oharrak aztertuko ditugu guk, *Besteen odola*, *Finzi-Continitarren lorategia* eta *Robinson Crusoerenak*.

4.2. Aztertuko diren itzultzailearen ohardun lanen berri

Urrezko Biblioteka bildumako hiru liburu horiek hautatu ditugu itzultzailearen oharren azterketa egiteko. Hizkuntza ezberdinetatik eta itzultzaile ezberdinek egindako itzulpenak izatea lehenetsi genuen.

Besteen odola (jatorrizko lana, frantsesez: *Le Sang des autres*) Simone de Beauvoir idazle, filosofo eta feminista frantziarrak 1945ean idatzitako eleberria da. Bigarren Mundu Gerra aurretik eta Gerran zehar Parisen bizi diren hainbat pertsonaiaren bizitzak deskribatzen dira bertan, eta askatasuna eta ardura bezalako gaiak jorratzen dira, besteak beste. Oier Alonso Etxebarria itzultzaileak ekarri zuen euskarara 2001ean, Ibaizabal argitaletxearen eskutik,

Literatura Unibertsala bildumaren barruan. Lan horren sareko argitalpena ere egin zen, armiarma.eus webgunean. Paperezko bigarren itzulpena 2021ean argitaratu zen, Elkar argitaletxearen eskutik, Urrezko Biblioteka bilduman.

Finzi-Continitarren lorategia (jatorrizko lana, italieraz: *Il giardino dei Finzi-Contini*) Giorgio Bassani idazle italiarrak 1962an argitaratutako eleberria da. Italia faxistako Ferrara hirian dago kokatuta, eta klase sozial guztiz ezberdinetako bi gazte judutarren arteko ezinezko maitasun istorioa kontatzen da. Koldo Biguri Otxoa de Eribe itzultzaileak euskaratu zuen, 1997an, Ibaizabal argitaletxearen eskutik, Literatura Unibertsala bildumaren barruan. Lan horren sareko argitalpena ere egin zen, armiarma.eus webgunean. Paperezko bigarren itzulpena 2016an argitaratu zen, Elkar argitaletxearen eskutik, Urrezko Biblioteka bilduman.

Robinson Crusoe (jatorrizko lana, ingelesez: *Robinson Crusoe*) Daniel Defoe idazle ingelesak 1719an argitaratutako eleberria da. Ingelesez idatzitako lehenengo eleberrizat jotzen da, eta inoizko abentura-liburu ezagunenetariko bat da. Fikziozko autobiografia horretan Robinson Crusoe izeneko naufrago ingeles batek irla desertu batean igarotzen dituen 28 urteak kontatzen dira. Aintzane Ibarzabal Esnaola itzultzailea izan zen liburu hori euskarara ekarri zuena, 1997an, Ibaizabal argitaletxearen eskutik, Literatura Unibertsala bildumaren barruan. Beste bi liburuen kasuan bezala, lan horren sareko argitalpena ere egin zen, armiarma.eus webgunean. Paperezko bigarren itzulpena 2012an argitaratu zen, Elkar argitaletxearen eskutik, Urrezko Biblioteka bilduman.

4.3. Ohar kopurua eta maiztasuna

Atal honetan *Besteen odola*, *Finzi-Continitarren liburutegia* eta *Robinson Crusoe* obren euskarazko bi itzulpenen analisi kuantitaboa egingo dugu. Honako hauek dira itzulpen horien paperezko bi argitalpenetan agertzen diren orri kopurua, itzultzailearen ohar kopurua eta itzultzailearen ohar bat zenbat orririk behin topa daitekeen:

4. taula: *Analisi kuantitatiboa - Besteen odola*

<i>Besteen odola</i> (Oier Alonso)	2001eko itzulpena	2021eko itzulpena
Orri kopurua	324	327
Itzultzailearen ohar kopurua	6	6
Itzultzailearen ohar 1 zenbat orririk behin	Ohar 1 54 orririk behin	Ohar 1 54,5 orririk behin

5. taula: Analisi kuantitatiboa - Finzi-Continitarren lorategia

<i>Finzi-Continitarren lorategia</i> (Koldo Biguri)	1997ko itzulpena	2016ko itzulpena
Orri kopurua	305	300
Itzultzailearen ohar kopurua	18	19
Itzultzailearen ohar 1 zenbat orririk behin	Ohar 1 16,94 orririk behin	Ohar 1 15,79 orririk behin

6. taula: Analisi kuantitatiboa - Robinson Crusoe

<i>Robinson Crusoe</i> (Aintzane Ibarzabal)	1997ko itzulpena	2012ko itzulpena
Orri kopurua	372	359
Itzultzailearen ohar kopurua	33	33
Itzultzailearen ohar 1 zenbat orririk behin	Ohar 1 11,27 orririk behin	Ohar 1 10,87 orririk behin

Hiru taulak aztertuta, lehenik eta behin, argi antzeman dezakegu hiru liburuen paperezko lehenengo eta bigarren argitalpenen artean ez dagoela ia ezberdintasunik. Orri eta itzultzailearen ohar kopurua ia bera da kasu guztietan. Orri kopuruari dagokionez, *Robinson Crusoe* du tarterik handiena, bigarren argitalpenak 12 orri gutxiago baititu. Hala ere, ez dugu uste orri kopuruarena datu garrantzitsua izan daitekeenik, letra tamaina, liburuaren neurriak, etab. aldatzea ohikoa baita edizio batetik bestera. Itzultzailearen ohar kopurua ere ez da ia aldatu lehenengo itzulpenetik bigarrenean. *Finzi-Continitarren lorategia* da itzultzailearen ohar kopuru bera ez duen itzulpen bakarra, bigarren argitalpenean ohar bat gehitu baitzion Bigurik, eta itzultzailearen ohar bat zenbat orririk behin ager daitekeen dioen koadroak ezberdintasun oso txikiak ditu lehenengo argitalpenetik bigarrenean. Horrenbestez, argi eta garbi ondoriozta dezakegu hiru itzulpenetako bi edizioak ia berberak direla elkarren artean.

Hala ere, horrek ez du esan nahi hiru itzulpen horietako itzultzailearen oharren erabilera ere berbera denik. Oier Alonso izan da oharrak gutxien erabili dituen itzultzailea, guztira 6 ohar erabili baititu itzulpen bakoitzean, itzultzailearen ohar bat 54 eta 54,5 orririk behin. Hau da, beste bi itzulpenetan baino ia bost aldiz ohar gutxiago erabili dira *Besteen odola* itzulpenean. Hain zuzen ere, Koldo Bigurik 18 eta 19 ohar erabili ditu, ohar bat 16,94 eta 15,70 orririk behin hurrenez hurren. Ohar gehien erabili dituen Aintzane Ibarzabal izan da, 33 ohar baitaude haren bi argitalpenetan, ohar bat 11,27 eta 10,87 orririk behin.

Datu horiei esker, ondoriozta dezakegu hiru itzultzaileek itzultzailearen oharren erabilera ezberdina egin dutela (batez ere Alonsok, Biguri eta Ibarzabalekiko). Itzultzailearen ohar horien azterketa kualitatiboa egingo dugu jarraian, ohar horien xehetasun gehiago jakiteko.

4.4. Oharren nolakotasuna: luzera eta funtzioei buruz

Analisi kualitatiboari helduta, itzulpen bakoitzeko itzultzailearen oharren luzera aztertuko dugu lehenengo. Horretarako, lan horietako itzultzailearen oharrek batez beste zenbat hitz dituzten kalkulatu dugu. Jarraian agertzen den taulak erakusten digu datu hori. *Besteen odola* eta *Robinson Crusoe* itzulpenetan, argitalpen batetik bestera ohar kopurua mantendu egin denez, bi argitalpenen batez bestekoa egingo dugu. *Finzi-Contintarren lorategiaren* kasuan, berriz, lehenengo itzulpenetik bigarreneara ohar bat gehitzen da, baina ohar berri hori lehenengo itzulpeneko ohar baten zatiketaren ondorio da. Horrenbestez, 1997ko argitalpeneko estatistikak hartuko ditugu kontuan.

7. taula: Hiru itzulpenen oharreko hitz kopurua

	<i>Besteen odola</i> (Oier Alonso)	<i>Finzi-Contintarren lorategia</i> (Koldo Biguri)	<i>Robinson Crusoe</i> (Aintzane Ibarzabal)
Hitz/oharreko	59,16 hitz oharreko	14,16 hitz oharreko	9,75 hitz oharreko

Datu horiek eskuartean, argi ikusten da Oier Alonsoren itzulpenetako oharrak besteetakoak baino luzeagoak direla. Koldo Biguriren eta Aintzane Ibarzabalen lanetako oharrek esaldi eskaseko luzera dute (14,16 hitz oharreko eta 9,75 hitz oharreko, hurrenez hurren), baina *Besteen Odola* itzulpenak perpaus bat baino gehiago du bere barnean, batez beste 59,16 hitzez osatuta baitaude.

Itzulpen horietako bakoitzaren oharren funtzioak eta bestelakoak aztertuko ditugu segidan, metodologiaren atalean zehaztutako sailkapenei jarraiki.

4.4.1. Itzultzailearen oharrak: *Besteen odola*

Oraingoz ikusi dugunaren arabera, Alonsoren itzulpeneko oharrak kopuruz ugariak ez, baina besteen aldean luzeagoak dira. Bada, horrez gain, erabilitako sailkapenak aztertuta, ohar denek antzeko ezaugarriak dituztela ikus dezakegu:

8. taula: Analisi kualitatiboa - Besteen odola

Newmark	Cantera	Delisle
Argibide teknikoak: 6 (% 100)	Izen propioak azaltzea: 5 (% 83) Siglak azaltzea: 1 (% 17)	Ohar esplikatioak: 6 (% 100)

Taulak erakusten duen moduan, *Besteen odola* itzulpenean ildo berekoak dira. Gehienak pertsonaia historikoen biografia laburrak dira, honako hau kasu:

9. taula: 4.4.1 1. adibidea

Itzultzailearen oharra

Blum - Léon Blum (Paris, 1872.- Yvelines, 1950). Jaurès-en Alderdi Sozialistako politikaria, ezkerraren batasunaren sustatzailea eta *Front Populaire*-eko lehen gobernuaren burua izan zen, non aurrerakuntza sozial ugari bultzatu baitzituen. Espainiako gerrari buruzko eztabaida zela-eta gobernuak galdu zuen, ezkerraren banaketaren ondorioz. 1940an Vichyko gobernuak atxilotu eta alemanen eskuetan utzi zuen. 1945ean askatu zuten (157. or.)

Biografia laburrak ez diren kasuetan, *Maginot lerroa* gotortze-sistema eta T.S.F. siglari buruzko azalpenak⁴ daude.

Leon Blumen adibidea eskuartean, argi dago horrelako azalpen guztiak Newmarken bereizketako argibide teknikoak direla, ez baitute gai linguistiko zein kulturalik lantzen. Canteraren funtzio motetara joz gero, sei oharretatik bost izen propioak azaltzeko erabili dira —gotortze-sistema batena batetik, eta pertsona-izenak, bestetik— eta bat siglak azaltzeko. Delisleren sailkapena hartuz gero, itzultzailearen ohar guztiak ohar esplikatioak direla ondoriozta daiteke, izen propio zein siglak azaltzeko horiek erabiltzen baitira. Oharrak hain luzeak izanik, pentsa genezakeen adituentzako oharrak izan zitezkeela, baina azaltzen diren elementuen deskripzio edo biografia laburrak eskaintzen dituzte.

4.4.2. Itzultzailearen oharrak: Fintzi-Continitarren lorategia

Biguriren itzulpenaren kasuan, hark erabilitako oharrak anitzagoak dira. Hona hemen taula:

⁴ Itzultzailearen ohar horiek eta gainerako guztiak ikusteko, ikus eranskina.

10. taula: Analisi kualitatiboa - Finzi-Continitarren lorategia

Newmark	Cantera	Delisle
Argibide kulturalak: 4 (% 22)	Itzuli ezin den hitz edo espresio bat azaltzea: 1 (% 6)	Itzulpen oharrak: 8 (% 44)
Argibide linguistikoak: 13 (% 72)	Izen propioak azaltzea: 4 (% 22)	Ohar esplikatiboak: 4 (% 22)
Argibide teknikoak: 1 (% 6)	Termino edo esaera bat azaltzea: 6 (% 33)	Ohar argitzaileak: 6 (% 33)
	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea: 1 (% 6)	
	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea: 6 (% 33)	

Taulak erakusten duen bezala, denetariko ohar motak erabili dira itzulpen honetan. Lehenik eta behin, Newmarken bereizketako hiru argibide moten adibideak aurki ditzakegu. Gehienak argibide linguistikoak dira, Bigurik itzulpenean bere horretan utzi nahi izan dituen hebreerazko terminoak kasu, honako hau bezala:

11. taula: 4.4.2. 1. adibidea

Itzultzailearen oharra

Hahàm – Hahàm (hebr.): jakintsua (79. or.).

Lau argibide kultural ere badaude, Italiako kulturako elementuen azalpenak eskaintzen dituztenak, eta argibide tekniko bat, nobela bateko pertsonaia baten izen-propioa azaltzeko⁵.

Canteraren zerrendara jauzi eginda, denetarik aurki dezakegu. Sei oharren funtzioa termino edo esaera bat azaltzea da, hebreerazko hitz horien euskarazko esanahia azaltzea hain zuzen. Beste sei esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea dute xede (Newmarkek sailkapenean itzultzailearen ohar horiek guztiak argibide linguistikoetan biltzen ziren, baina Canterak ezberdindu egiten ditu). Zehazki, italieraz itzuli gabe utzitako hainbat poesiaren itzulpenak daude Biguriren ohar horietan, honako hau adibidez:

⁵ Ikusi taula beteta eranskinean.

Itzultzailearen oharra

Nò Ghittin: no sont capaz / De traditt: nò, stà pur franca. / Mettem minga insemma a mazz / Coj gingitt e cont'i s'cianca... - Ez, Margaritaxo: ez naiz gauza /zu traizionatzeko: ez, egon lasai. / Ez nazazu jar / gizon zital andrekoien pare.... (268. or.)

Bestalde, lau oharrek izen propioak azaltzen dituzte, Italiako erakunde edo jainko ezberdinen izenak, *Opera Nazionale Balilla* esaterako. Azkenik, itzuli ezin den hitz edo espresio bat azaltzeak eta aipu edo erreferentzia bibliografikoak egiteak adibide bakarra daukate. Lehenengo ohar mota *Sansepolcrista* zer den azaltzeko erabiltzen da, terminoak ez baitu baliokiderik beste hizkuntzetan. Bigarrena, aldiz, liburuan egiten den aipu bat nork esan zuen argitzen du.

Delisleren sailkapenera igarota, itzulpen oharrak eta ohar argitzaileak dira nagusi. Itzulpen oharretan gehienbat arestian aipatutako hebreerazko terminoak elkartzen dira. Ohar argitzaileek, berriz, italierazko poema labur horiek pilatzen dituzte. Azkenik, ohar esplikatiboek, *Besteen odola* itzulpenekoen antzera, oro har izen propioen azalpenak eskaintzen dituzte, ondorengo adibidean bezala:

Itzultzailearen oharra

Don Abbondio - Manzoniaren *Ezkongaiak* nobelako pertsonaia (241. or.)

4.4.3. Itzultzailearen oharrak: *Robinson Crusoe*

Arestian aztertu ahal izan dugun moduan, itzulpen honetantxe daude ohar gehien. Beraz, kopuruz ohar asko egoteak ohar moten aniztasuna dakarren jakin ahal izango dugu. Ikus ditzagun datuak taula batera ekarrita:

Newmark	Cantera	Delisle
Argibide teknikoak: 31 (% 94)	Izen propioak azaltzea: 9 (% 27)	Ohar esplikatioak: 22 (% 66)
Argibide linguistikoak: 2 (% 6)	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea: 6 (% 18)	Itzulezintasun oharrak: 5 (% 15)
	Termino edo esaera bat azaltzea: 10 (% 30)	Ohar linguistikoak: 2 (% 6)
	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea: 6 (% 18)	Iruzkin oharrak: 4 (% 12)
	Sorburu testuko akats bat zuzentzea: 2 (% 6)	

Alonsorenean ez, baina Biguriren itzulpenean bezala, Ibarzabalek askotariko oharrak erabiltzen ditu. Hala ere, badago ezberdintasunik sailkapen batetik bestera.

Hasteko, Newmarken sailkapenean homogeneotasun handia dute argibide teknikoek, ia denak horrelakoak dira. Kasu askotan euskarazko irakurlearentzat ezezagunak izan daitezkeen leku izenak non dauden eta zer diren azaltzeko erabiltzen dira, ipuinak berak toki batetik besterako mugimendu asko baititu. Hona hemen adibide bat:

15. taula: 4.4.3. 1. adibidea

Itzultzailearen oharra

Winterton Ness - Ipar itsasoko lurmuturra, Norfolk-eko konderrian (27. or.).

Moneta-ezberdintasunak, aipuak edota iruzkinak⁶ egiteko ere erabiltzen ditu argibide horiek Ibarzabalek. Bestalde, argibide linguistikoak erdaretako hitzen esanahia argitzeko erabili dira, nederlandera eta jatorri arabiarreko bi termino azaltzeko, zehazki.

Canteraren funtzioetara joz gero, *Robinson Crusoe* itzulpenean bost ohar mota bereiz daitezke. Maizen agertzen direnak termino edo esaera bat azaltzeko erabilitakoak dira. Euskal irakurlearentzat arrotzak edo ezezagunak izan daitezkeen terminoen azalpena egiten du

⁶ Ikusi taula beteta eranskinean.

itzultzaileak, *horikai*, *eztai* edo *granada*, besteak beste. Bestalde, izen propioak azaltzeko ere nahikoa erabili direla ikus daiteke. Lehen aipatu bezala, toki-izen asko agertzen dira, eta horietako batzuk azaltzeko erabiltzen dira ohar horiek, *Sale*, *San Augustino* edo *Gambia ibaia* kasu.

Horrez gain, aipu edo erreferentzia bibliografikoak egiteko eta itzulpen zalantzarri bat justifikatzeko hamabi ohar erabili dira, sei bakoitzeko. Erreferentzia bibliografikoei dagokienez, gehienbat ipuineko aipua Bibliako zein ebanjeliotik hartu duen argitzeko erabili dira. Itzulpen zalantzarriak justifikatzerako orduan, prozedura bera erabili du ohar guztietan, honako adibide hauek erakusten duten bera hain zuen:

16. taula: 4.4.3. 2. adibidea

Itzultzailearen oharra

Padre – Era horretan idatzia jatorrizkoan (338. or.).

Hondarribira - Fontarabia jatorrizkoan (341. or.).

Kasu den-denetan sorburu testuan hitz hori nola agertzen den erakusten saiatzen da Ibarzabal. Gure ustez, hori itzultzerako orduan zalantzak izan zituelako da, «*padre*»ren adibidean jatorrizkoan modu horretan dagoela esaten baitu, berak ere hitz berarekin itzuli duela justifikatzeko, «Hondarribira»ren kasuan, hitza euskarara ekartzen du, baina badaezpada sorburu testuan agertzen den hitza ere eskaintzen du.

Azkenik, interesgarria iruditu zaigu Ibarzabalek sorburu testuko akatsak zuzentzeko ere oharrak baliatu izana. Hona hemen adibide bat:

17. taula: 4.4.3. 3. adibidea

Itzultzailearen oharra

Europako garagarren mota berekoak, Ingalaterrakoak bezalakoak ez izan arren - Ez dirudi desberdintasun handirik dagoenik Europako eta Ingalaterrako garagarren artean (104. or.).

Ikus dezakegunez, Daniel Defoek dio Ingalaterrako garagarra ez dela Europakoa bezalakoa, eta Ibarzabalek, ohar bidez, zuzenketa egin dio, bateko zein besteko desberdintasunik ez dagoela esanda.

Amaitzeko, Delisleren sailkapenean, ohar esplikatiboek dute nagusitasuna, bertan elkartzen baitira izen propioen azalpenak, erreferentzia bibliografikoak edota terminoen azalpenak. Bestalde, itzulezintasunari lotutako bost ohar identifikatu ditugu (horietako gehienak Canteraren itzulpen zalantzarri bat justifikatzea funtzioan sartu ditugu), horietan itzultzaileak jatorrizkoan agertzen den hitza ere eman baitu, badaezpada. «Iruñera» eta «Hondarribira» terminoekin ere gauza bera egin du, baina kasu horiek ez dugu uste itzulezintasun oharrak direnik, Euskal Herriko leku-izenak baitira, itzultzaile zein irakurleak ia ziur ezagutzen dituenak. Jatorrizko lanaren zuzenketak egiteko ere erabili dira iruzkin oharrak. Azkenik, bi ohar linguistiko erabili dira (Newmarken argibideetan argibide linguistiko bezala zehaztu diren bi horiek, hain zuzen).

5. Eztabaida

Analisi kuantitatibo eta kualitatiboak osatuta, erauzitako datuak eztabaidatuko ditugu atal honetan. Kuantitatiboki, Ibarzabal izan da ohar gehien erabili duen itzultzailea (ikus 4.3. atala), tarte handiarekin gainera. Hala ere, ez dugu uste datu horrek itzuli beharreko liburuarekin edo sorburu testuaren ezaugarriekin zerikusirik duenik, itzultzailearen hautuekin baizik. Landu ditugun hiru testuetan agertu dira atzerriko kulturetako elementu ezberdinen izenak, eta hiruretan hautu ezberdinak egin dira oharren erabilerari dagokionez. Azken finean, itzultzaile bakoitzak norbere ohitura eta gustuak ditu, eta batzuek ohar gehiago erabiltzen dituzte, Ibarzabalen kasuan bezala.

Bestalde, itzultzaileak buruan zuen irakurle motak ere izan dezake eraginik. *Robinson Crusoe* mundu-mailan ezaguna den liburu bat da, inoizko irakurrienetarikoa bat. Horren harira, itzultzaileak pentsa dezake bere lana jende askok irakurriko duela, eta testuak ahalik eta ulergarriena izan behar duela mundu guztiarentzat. Horrenbestez, irakurle arruntarentzat ulertzeko zailak izan litekeen hitz orori ohar bat txertatzea erabaki dezake itzultzaileak.

Besteen odolaren kasuan, aldiz, kutsu askoz politikoagoko testua izanik, itzultzaileak pentsa dezake batez ere gaien interesa dutenek irakurriko dutela itzulpena, liburuan kontatzen diren gertakariei buruzko ezagutza dutenek, eta hori dela eta ez dela beharrezkoa hainbeste ohar txertatzea. Irakurleak 'adituagoak' izango direla pentsatzeak eragin dezake itzultzailearen hautuan.

Hala ere, gaiarekiko jakintza-maila horrek ere sor dezake oharren hedadura beste itzulpenetako baino luzeagoa izatea. Hau da, irakurleek gaiarekiko interesa dutela iritzita, pertsonaia historiko baten biografia azaltzen hasi eta xehetasun ugari ematea aberasgarria izan daitekeela pentsa dezake itzultzaileak. Biguriren eta Ibarzabalen itzultzaileen oharrak laburrak eta zehatzak dira. Alonsorenak, aldiz, luzeak eta informazioz beteak (ikus 4.4. atala).

Oharren kopuruaren eztabaidara itzulita, *Finzi-Contintarren lorategia* da aztertutako hiru itzulpenen artean, kopuruari dagokionez, erdian kokatuta dagoena. Kasu honetan ere oharren erabilera baldintzatu duena itzultzailearen hautua izan dela deritzogu. Politika gaiak ere jorratzen dituen testua den arren, Bigurik arreta testuaren ulerterraztasunean jarri duela uste dugu, agian irakurleak gaiari buruzko jakintza izango duela pentsatuta. Horrenbestez, oro har erdaretako (hebreerazko eta italierazko) hitz eta perpausen esanahia argitzeko erabili ditu oharrak, hizkuntza horiek ez dakizkien euskal irakurleak testua osoki uler dezan.

Datuak ikusita, beraz, pentsa dezakegu itzultzaile bakoitzak buruan duen irakurle motak eragina du oharren kopuruan eta luzeran, bai eta erabiltzen diren ohar moten gainean ere. Ibarzabalen eta Alonsoren itzulpenetan Newmarken sailkapeneko argibide teknikoak dira nagusi, eta Bigurirenean, berriz, linguistikoak (ikus 4.1., 4.2. eta 4.3. atalak). Bigurik oharren bidez lortu nahi izan duena argi erakusten du horrek: atzerriko hizkuntzetako termino zein esaldien azalpenak ematea, euskal irakurleari horiek ulertzeko baliabideak itzulpenean bertan ematea. Besteek, oster, hizkuntzen arteko zubi-lan egiteko baino kulturen arteko bitartekari jardun dute gehienbat.

Canteraren sailkapenera jauzi egiteak bide emango digu jada Ibarzabalen eta Alonsoren itzulpenetako ohar moten ezberdintasuna argiago ikusteko. *Besteen odola* itzultzeko erabilitako ia ohar guztien funtzioa izen propioak azaltzea da, irakurleei liburuan aipatzen diren pertsonaia historikoen biografiak plazaratzea. *Robinson Crusoe* itzultzeko oharren funtzioak, oster, ez dira izen propioak azaltzera soilik mugatzen, eta termino edo esaera azaltzea, aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea edota itzulpen zalantzarriak justifikatzea ere badute xede. Arestian aipatu bezala, *Robinson Crusoe* hiruretan libururik ezagunena izanik, irakurle gehiago izango ditu, eta horrek elementuen ulerterratasuna handitzea dakar, gauza gehiago azaldu beharra, arlo guztietan xehetasun gehiago eman beharra.

Aipagarria iruditzen zaigu *Finzi-Contintarren lorategiako* oharrek ere Canteraren funtzioen aniztasun handia dutela. Argi ikusten da, beraz, ohar kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ohar mota gehiago egongo direla.

Bestalde, ez dugu uste jatorrizko hizkuntzak eraginik duenik oharren aldakortasunean, itzultzailearen hautu pertsonala izaten baita sorburu testuaren kultur elementuak xede hizkuntzara nola eraman.

Jada hiru itzulpenetako ohar motak nahikoa ezberdinduta baditugu ere, Delisleren sailkapena hartuta, Bigurik batez ere itzulpen oharrak eta ohar argitzaileak erabiltzen dituela ondorioztatu dezakegu. Beste bi itzulpenetan, ordea, ohar esplikatioak dira nagusi, Ibarzabalenean besteak beste iruzkin-oharrak ere badauden arren. Horrek bi kontu berrestea laguntzen digu: batetik, Bigurik oharrak batik bat hizkuntza-ikuspuntutik erabili dituela eta, bestetik, ohar kopuruak ohar moten aberastasunean eragina duela.

Gauzak horrela, Ukušovák iritzi kontrajarriak edukiko lituzke hiru itzulpen horietako oharren gainean. Kontuan hartu beharra dago, Ukušováren arabera, itzultzailearen oharrak oso tentuz

erabili beharreko tresnak direla, informazio asko emateak balio estetikoari eta irakurketa prozesuari kalte egin baitiezaiokete (2021).

Ikertzaile eslovakiarraren irizpideak jarraituz, Alonsoren itzulpenean, oharren kopuruak ez luke arazorik izango, baina gehiegizko luzera dutela ere ondorioztatu daiteke. Ukušovák «izaera entziklopedikoa» dutela esango luke (2021, 68 or.), informazio gehiegi ematen dutela eta irakurketa prozesua mozten dutela. Hala ere, Toledanoren bereizketako ohar argitzaileak dira denak, objektiboak guztiz, eta hori positibotzat joko luke. Ondorioz, *Besteen odolako* oharren eragozpen bakarra luzeegiak direla izan liteke, beste alderdietan bat egiten baitute kritikariekin ontzat emandako alderdiekin.

Biguriren itzulpeneko oharren kopurua ez dugu uste gehiegizkoa denik. Nagusiki erdaretako hitz eta esaldien esanahia argitzeko erabili ditu, eta horrek zehaztu du itzulpeneko ohar kopurua. Beraz, atal teorikoan ekarri ditugun adituen irizpide eta iritzietara jota, kopuru aldetik erabilera egokitzat jotzen dugu, eta luzera aldetik ere bai. Poesiak itzultzeko erabilitako oharrak kenduta (jatorrizko hizkuntzako poesien luzerak aldakorrak baitira), beste kasu guztietan azalpen labur eta zehatzak egin dira. Henryk aipatzen zuen sorburu testuaren eta itzultzailearen arteko «kontratu morala» errespetatu dela deritzogu (2000). Bestalde, Toledanoren sailkapena hartuta, kasu honetan ere ohar denak argitzaileak dira, objektibotasunez beteak. Gauzak horrela, Bigurik oharren erabilera orekatua egin duela irizten diogu.

Amaitzeko, Ibarzabalek erabili du oharririk gehien, baina asko erabiltzetik gehiegi erabiltzera tartea dago, eta norberaren uste pertsonalen arabera izan daiteke ohar horien egokitasuna. Gure kasuan, ez genuke esango irakurketa prozesua moteltzen dutenik. Hori horrela, ohar kopurua ez zaigu gehiegizkoa iruditzen. Luzerari dagokionez ere erabilera egokia da, oharrak laburrak (hiru itzulpenen artean laburrenak) eta zehatzak baitira. Toledanoren sailkapena ikusita, ohar diskurtsibo batzuk identifika daitezke, ohar subjektiboak, idazlearen eta irakurlearen arteko hartu-emanak zailtzen dutenak (Toledano, 2010). Idazleak egin izan dituen akatsak zuzentzeko erabili dituen oharrak dira horietako batzuk. Horrenbestez, Ibarzabalek erabilitako oharrak luzera eta kopuru aldetik ez dute arazorik baina, atal teorikoan ikusi dugun bezala, ohar diskurtsibo batzuk baliatu izana zenbait adituk ez dute egokitzat jotzen, irakurketa moteltzen eta irakurlearekiko hartu-emanak mozten baitute.

6. Ondorioak

Lan honen bitartez, itzultzailearen oharrei buruzko euskarazko marko teoriko bat osatu da, eta hori baliatuz hiru hizkuntza ezberdinetatik eta hiru itzultzaile ezberdinek euskarara itzulitako hiru lan ezberdinetako (*Besteen odola*, *Finzi-Continitarren lorategia* eta *Robinson Crusoe*) oharren azterketa egin da.

Sarreran aipatu bezala, lanaren xede ez da izan itzultzailearen oharrak erabiltzea ongi edo gaizki dagoen eztabaidatzea. Nazioarteko lan ezberdinak aztertu eta alderatu ditugu, sailkapen bat baino gehiago izan dugu eskuartean, beste hainbat ikerketek lortutako emaitzak ikusi ditugu... eta horrekin guztiarekin Alonsoren, Biguriren eta Ibarzabalen itzulpenetako oharren kopurua, luzera edota zernolakotasuna alderatu ahal izan ditugu. Esango genuke lortu dugula euskal itzulpengintzari gure aletxoak jartzea, ez baitugu ikergai honi buruzko lanen aurrekaririk aurkitu.

Lanean zehar ikusi ahal izan dugun bezala, itzultzailearen hautu pertsonalek eragina dute oharren kopuruan, norberak bere ohitura eta gustuak baititu. Hala ere, hautu pertsonalak ez ezik, itzultzaileak buruan duen irakurle motak oharren araberako erabakiak aldatzea ekar dezake, *Robinson Crusoe* eta *Besteen odolako* oharrak alderatzerakoan ikusi dugun bezala. Lehenengoan, gure ustez itzultzaileak publiko orokorrigo bat du buruan, eta ohar asko baina laburrak egiten ditu. Bigarrenean, berriz, itzultzaileak publiko adituago batengan pentsa dezake, liburuaren gaian interesa duen jendea, eta ohar kopurua oso murrizta bada ere, azalpenez eta xehetasunez betetakoak dira.

Bestalde, kopuru eta luzera ezberdina ez ezik, aztertu ditugun itzulpenetako oharrak helburu ezberdinekin erabili dira. Argi ikusi dugu Bigurik testuaren ulerterratasunaren alde txertatu dituela bereak; erdaretako hitz eta perpausen esanahia argitzeko erabili ditu, azalpenik gabe irakurle arruntak ulertuko ez lituzkeen terminoak itzultzeko. Beste bi kasuetan, aldiz, hizkuntzen arteko zubi-lana egiteko erabilitako ohar batzuk badaude ere, oro har kultur- edo bibliografia-kontuak argitzeko erabili dira. Horrez gain, sorburu hizkuntzak oharrengan ez duela eraginik ondorioztatu dugu.

Etorkizunera begira, lan honen edukia hedatzeko eta sakontzeko aukera ugari daudela uste dugu. Honako lan honek luzera muga duenez, atal teorikoan ezin izan ditugu itzultzailearen oharrei buruzko nahi beste alderdi gehitu, eta lana garatzeko interesgarri izan daitezkeen ikerlanak egon badaude. Bestalde, analisiari dagokionez, guk hiru lagin soilik aztertu ditugu, eta aurreragoko lanetarako aukera bat izan liteke aztertutako lan kopurua handitzea. Zenbat eta

lagin gehiago aztertu, orduan eta ondorio zehatzagoak erauzi ahal izango dira. Gainera, itzultzailearen ohar asko bilduz gero, oharren corpus bat sortu daiteke. Online bertsioekin zer gertatzen den aztertzea eta alderaketak egitea ere aukera interesgarri bat izan liteke.

Laburbilduz, itzulpen ikasketak burutu dituen ikasle bezala, lan honi esker itzultzailearen oharretan sakontzeko aukera izan dut, hain ohikoa ez den itzulpen-teknika batean. Ohar mota asko daudela ikusi ahal izan dut eta, beraz, oharrek erabilera ugari dituztela, nahiz eta oharrei buruzko usteen atalean ikusi bezala, iritzi kontrajarriak egon. Azken finean, itzultzaile jardunak etengabe erabakiak hartzean datza, eta horren erakusgarri dira itzultzailearen oharrak.

7. Bibliografia

- Álvarez Jurado, Manuela (2021). En torno al prólogo y las notas de la traducción al español del *Codex, Pharmacopée française* de 1837. *Çedille: Revista de Estudios Franceses*, (20), 215-235.
- Arbulu Barturen, María Begoña (2020). La visibilidad del traductor: las notas al pie de página en las traducciones españolas de la *Grammatica della fantasia* de Gianni Rodari. *Orillas: revista d'ispanistica*, (9), 543-572.
- Bassani, Giorgio (1997). *Finzi-Continitarren lorategia*. Koldo Biguri (itzul.). Euba: Ibaizabal.
- Bassani, Giorgio (2016). *Finzi-Continitarren lorategia*. Koldo Biguri (itzul.). Donostia: Elkar.
- Beauvoir, Simone (2001). *Besteen odola*. Oier Alonso (itzul.). Euba: Ibaizabal.
- Beauvoir, Simone (2021). *Besteen odola*. Oier Alonso (itzul.). Donostia: Elkar.
- Cantera Ortiz de Urbina, Jesús (1999). Las notas del traductor. Reivindicación de su oportunidad y conveniencia. *Lengua y cultura: estudios en torno a la traducción: volumen II de las actas de los VII Encuentros Complutenses en torno a la traducción*, (2), 31-50.
- Defoe, Daniel (1997). *Robinson Crusoe*. Aintzane Ibarzabal (itzul.). Euba: Ibaizabal.
- Defoe, Daniel (2012). *Robinson Crusoe*. Aintzane Ibarzabal (itzul.). Donostia: Elkar.
- Delisle, Jean (2003). *La traduction raisonnée. Manuel d'initiation à la traduction professionnelle de l'anglais ver le français*. Ottawa: Les Presses de l'Université d'Ottawa.
- Eguaras, Mariana (2015). En un libro: ¿notas al pie de página o al final?. [*On-line*], eskuragarri hemen: <https://marianaeguaras.com/en-un-libro-notas-al-pie-de-pagina-o-al-final/> [Kontsulta eguna: 2023/03/15].
- Euskaltzaindiaren Hiztegia – Bilaketa (d.g.).*
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=36171&query=ohar [Kontsulta eguna: 2023/03/15].
- Genette, Gérard (2001). *Umbrales*. Susana Lage (itzul.). Mexiko: Siglo XXI.

- Haroon, Haslina (2019). The use of footnotes in the Malay translation of a Thousand Splendid Suns. *The International Journal for Translation & Interpreting Research*, (11), 130-146.
- Henry, Jacqueline (2000). De l'éruditon à l'échec: la note du traducteur. *Meta: Journal des traducteurs=translators' journal*, (2), 228-240.
- Hurtado Albir, Amparo (2001). *Traducción y Traductología*. Madrid: Cátedra.
- Henry, Jacqueline (2000). De l'éruditon à l'échec: la note du traducteur. *Meta: Journal des traducteurs=translators' journal*, (2), 228-240.
- Ibarluzea, Miren (2013). Literatura Unibertsala bildumaren bideak. *Lapurdum: Euskal ikerketen aldizkaria*, (17), 93-117.
- Kamal Zaghoul, Ahmed (2011). Las notas a pie de página en la traducción del Corán. *Entreculturas: revista de traducción y comunicación intercultural*, (3), 17-36.
- Kaya, Mumtaz (2003). L'usage de la note en traduction: différentes approches adoptées par les traducteurs. *Turjuman: Revue du traduction et d'interpretation*, (13), 143-155.
- Literatura Unibertsala* (d.g.) EIZIE. https://eizie.eus/eu/argitalpenak/literatura_unibertsala [Kontsulta eguna: 2023/04/18].
- Newmark, Peter (1988). *A Textbook of Translation*. New York/Londres: Prentice Hall.
- Ribelles Hellín, Norma (2004). Las notas al pie de página en las versiones al español de las novelas de Patrick Modiano: «la honte du traducteur»? *Anales de Filología Francesa*, (12), 385-394.
- Sanchez Ortiz, María (2015). The Use of Footnotes in Literary Translation. *FORUM: Revue internationale d'interprétation et de traduction/International Journal of Interpretation and Translation*, (13), 111-129.
- Toledano Buendía, Carmen (2010). ¿Qué hay tras las 'notas del traductor'? *Lengua, traducción, recepción en honor de Julio César Santoyo*, (1), 637-662.
- Toledano Buendía, Carmen (2013). Listening to the voice of the translator: A description of translator's notes as paratextual elements. *The International Journal for Translation & Interpreting Research*, (5), 149-162.

Ukušová, Jana (2021). Translator's Footnotes as an (In)Effective Translation Strategy. *BRIDGE: Trends and traditions in translation and interpreting studies*, (2), 51-70.

Zubillaga Gómez, Naroa (2013). *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. (Doktore-tesia).

8. Eranskina

- *Besteen odola* – Oier Alonso

Itzultzailearen oharra	Newmark: argibide teknikoak, kulturalak edo linguistikoak ematen ditu?	Cantera: Zein funtzio betetzen du haren sailkapenaren arabera?	Delisle: Haren sailkapeneko zein ohar mota da?
<p>Maginot lerroa</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1927tik 1936ra, Frantziako iparrekialdeko mugan (Alsazia eta Lorena) eraikitako gotortze sistema. A. Maginot diputatuak sustatu zuen proiektua. Kolonietako, Pentsio eta Gerra ministroa ere izan zen, Ezker Demokratikoa alderdiaren izenean. Gotortzeak 200 km-ko luzera eta 15 km-ko zabalera zituen; baina 1940an ez zuen alemanen inbasioa galarazi, Belgikako muga ez baitzuen babesten. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>T.S.F.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Télégraphie sans fil</i>-eko siglak. Hau da, haririk gabeko telegrafia. Sistema honek irrati-uhinak darabiltza seinaleak igortzeko. Irratia mezuak telegrafiatzeko erabili zen bere hastapenetan. Nobela honetan, ordea, gaur egungo irrati arruntaz ari dira T.S.F. hitza agertzen denean. 	Argibide teknikoa	Siglak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>Blum</p> <ul style="list-style-type: none"> - Léon Blum (Paris, 1872.- Yvelines, 1950). Jaurès-en Alderdi Sozialistako politikaria, ezkerrearen batasunaren sustatzailea eta <i>Front Populaire</i>-eko lehen gobernuaren burua izan zen, non aurrerakuntza sozial ugari bultzatu baitzituen. Espainiako gerrari buruzko eztabaida zela-eta gobernuak galdu zuen, ezkerrearen banaketaren ondorioz. 1940an Vichyko gobernuak atxilotu eta alemanen eskuetan utzi zuen. 1945ean askatu zuten. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
Schuschnigg	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa

<ul style="list-style-type: none"> - Kurt von Schuschnigg (Riva, 1897-Innsbruck, 1977). Politikari austriarra. Dolfuss-en gobernuan Diputatu kristau-demokrata, eta justizia eta Heziketa Publikoko ministro ohia, kantzeleri izendatu zuten Dolfussen hilketaren ondoren, 1934an. Austriaren independentziaren alde borrokatzen da sozialista eta nazien aurka. Hitlerrekin hitzarmen bat sinatu zuen, Austriako politikan sar ez zedin, baina haren truke naziak sartu zituen boterean eta azkenean alemanek dimititzera behartu zuten. Alemaniak Austria inbaditu (edo <i>anexionatu</i>) eta Schuschnigg deportatu zuten. 1945ean askatu zutenean Estatu Batuetara joan zen. 			
<p>Daladier</p> <ul style="list-style-type: none"> - Edouard Daladier (Carpentras, 1884-Paris, 1970). Politikari erradikal-sozialista. Diputatu eta ministro izana, <i>Front Populaire</i>-a bultzatu zuen, Alderi Erradikalaren baitatik. Léon Blumen defentsa ministroa izan zen (1936-1937) eta gobernu bera zuzendu zuen (1938-1940). 1939an gerra deklaratu zion Alemaniari. Reynaud-i (ikus 6. oharra, 260. orrialdean) utzi zion gobernuaren zuzendaritza eta gerra eta kanpo-arazoetako karterak hartu zituen. 1940an Vichyko gobernuak atxilotu eta alemanek deportatu egin zuten. 1945ean askatu zuten. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>Reynaud</p> <ul style="list-style-type: none"> - Paul Reynaud (Barcelonette, 1878-Neuilly-sur-Seine, 1966). Diputatua eta Finantza, Kolonietako eta Justizia ministro ohia <i>Front Populaire</i>-ari eta diktadurei aurre egin zien. 1938an Daladierren gobernuan sartu eta 1940an Kontseiluko buru izendatu zuten. Norvegiako eraso prestatu zuen Churchillekin batera. Pétain ezarri zuen Kontseiluko lehendakariordetzan. Inperioan gerran jarraitu nahi zuen, baina gutxiengoan geratu eta dimititu egin zuen, gobernu Pétaini utziz. 1940an Vichyko gobernuan atxilotu eta alemanen eskuetan utzi zuten. 1945ean askatu eta politikan jarraitu zuen. Europako batasuna bultzatu zuen. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa

- *Finzi-Continitarren lorategia* – Koldo Biguri

Itzultzailearen oharra	Newmark: argibide teknikoak, kulturalak edo linguistikoak ematen ditu?	Cantera: Zein funtzio betetzen du haren sailkapenaren arabera?	Delisle: Haren sailkapeneko zein ohar mota da?
<p>Sansepolcrista</p> <ul style="list-style-type: none"> - Faxismoaren sortzaileei horrela deitu zitzaizen, 1919an Milanoko San Sepolcro plazako eraikin batean bildu zirelako. 	Argibide kulturala	Itzuli ezin den hitz edo espresio bat azaltzea	Itzulpen oharra
<p>Opera Nazionale Balilla</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erregimen faxistan 8 eta 13 urte bitarteko mutikoak biltzen zituen erakundea. 	Argibide kulturala	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p><i>Goim</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Goim</i> (sing. <i>goi</i>), hebraiera: juduentzat, «jentilak», juduak ez direnak. 	Argibide linguistikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Itzulpen oharra
<p><i>Haltud</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Haltud</i> (hebr.): beatokeria. 	Argibide linguistikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Itzulpen oharra
<p><i>Havertà</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Havertà</i> (hebr.): emakumezko zerbitzaria. 	Argibide linguistikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Itzulpen oharra
<p><i>Hahàm</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Hahàm</i> (hebr.): jakintsua. 	Argibide linguistikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Itzulpen oharra
<p><i>Littoriale</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Gobernu faxistak antolatzen zuen kultur lehiaketa. 	Argibide kulturala	Izen propioak azaltzea	Itzulpen oharra

<p><i>Buricchi & Casher</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Buricchi</i>: Juduen pastel tipikoak, haragi xehetuz edo alemendra-oreaz beteak. - <i>Casher</i>: Juduen fede-aginduen arabera prestatuturiko janaria. 	Argibide linguistikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p><i>Che fece per viltade il gran rifiuto</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - «Doilorki uko handia egin zuena» (Dante, <i>Jainkotiar komendia</i>, «infernua», III). Aipua Zelestino V. Aitasantuari buruzkoa da, 1294an uko egin baitzion aitasantutzari. 	Argibide linguistikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Itzulpen oharra
<p>«Pitia» hura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Delfosko tenpluko sazerdotesa, Apolo jainkoaren izenan orakulua ematen zuena. 	Argibide kulturala	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p><i>Zòzga</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Zòzga</i> (hebr.): lagun taldea, koadrila. 	Argibide linguistikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Itzulpen oharra
<p>Don Abbondio</p> <ul style="list-style-type: none"> - Manzoniren <i>Ezkongaiak</i> nobelako pertsonaia 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p><i>Bravo el mè Baldissar! Bravo el mè nan! / L'eva poeù vora de vegnì a trovamm: / T'el seet mattascion porch che maneman / l'è on mes che no te vegent a ciollamm? / Ah Cristo! Cristo! com 'hin frecc sti man!</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Hori duk hori, ene Baldissar! Hori duk hori ene gizontxo! Bahuen garaia ni ikusterako etortzeko. / Ba al dakik, zeri zikina, gutxi gorabehera / hilabete badela nirekin txortan egitera ez haturrela? / A, Kristo, Kristo! Zeinen esku hotzak hireak! 	Argibide linguistikoa	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	Ohar argitzailea

<p><i>Nò Ghittin: no sont capaz / De traditt: nò, stà pur franca. / Mettem minga insemma a mazz / Coj gingitt e cont'i s'cianca...</i></p> <p>- Ez, Margaritaxo: ez naiz gauza /zu traizionatzeko: ez, egon lasai. / Ez nazazu jar / gizon zital andrekoien pare...</p>	Argibide linguistikoa	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	Ohar argitzailea
<p><i>Paracar, che scappee de Lombardia...</i></p> <p>- Errepide horiek, Lonbardiatik alde egiten duzuenak...</p>	Argibide linguistikoa	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	Ohar argitzailea
<p><i>Pensa edo pra, varda e scolta / Tant se viv e tant se impara; / Mi, quand nassi on'altra volta, / Nassi on gatt de portinara! / Per esempi, in Rugabella, / Nassi el gatt del sur Pinim... / ...scartoseij de coradella, / Polpa e fidgh, baretin / Del patron per dormigh sora...</i></p> <p>- Pentsatu eta ekin, begiratu eta aditu, / zenbat eta gehiago bizi hainbat eta gehiago ikasten da; ni, berriz jaiotzen naizenean / atezainaren katua izango naiz! / Adibidez, Rugabellan, / Pinin jaunaren katua izateko jaioko naiz... / ... bihotz, birika eta / gibel puskak, eta jabearen / kapelua bertan lo egiteko...</p>	Argibide linguistikoa	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	Ohar argitzailea
<p><i>Finalment l'alba tance vouelt spionada / Comparsa anca lee di filidur...</i></p> <p>- Azkenean egunsentia, hain irrikatua, / agertu zen pertsianetako zirrikituetatik.</p>	Argibide linguistikoa	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	Ohar argitzailea
<p><i>duv'ela mai ch'a si'ndà a far dann, tutt du?</i></p> <p>- Nora joan zarete biok, ez egitekoren bat egitera? (Ferrarako dialektoaz).</p>	Argibide linguistikoa	Esaera zaharrak edo lokuzioak azaltzea	Ohar argitzailea

- *Robinson Crusoe* – Aintzane Ibarzabal

Itzultzailearen oharra	Newmark: argibide teknikoak, kulturalak edo linguistikoak ematen ditu?	Cantera: Zein funtzio betetzen du haren sailkapenaren arabera?	Delisle: Haren sailkapeneko zein ohar mota da?
<p>Aitak lehenengo bizilekua Hull-en kokatu zuen, Bremengo etorkina baitzen</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bremen Ipar itsasoan dagoen Alemaniako portua eta hiria da. Hull, Britainia Handiko hiria da Yorkshire-n. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>... eta gizon jakintsua zenak garbi aitortzen zuela maila horren benetako zorientasuna, bere otoitzetan ez pobretasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esaera Zaharrak, 30, 8. 	Argibide teknikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Ohar esplikatiboa
<p>Winterton Ness</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ipar itsasoko lurmuturra, Norfolk-eko konderrian. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>Sale</p> <ul style="list-style-type: none"> - Marokoko hiri eta portua, Erdi Aroan eta, batez ere, XVII. mendean itsaslapurren bilgunea izan zena. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>Granadekin</p> <ul style="list-style-type: none"> - Antzinako egurrezko granadak ziren, sutautsez, harriz edo bestelako lehergaiz beteak zeudenak. 	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>basatien eskuetan erortzea lehoien eta tigreen atzaparretan erortzea bezain...</p> <ul style="list-style-type: none"> - Afrikan ez dago tigrerik ,baina hitza lehoiabar, pantera eta antzeko animaliak aipatzeko erabiltzen zen. 	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>Tenerifeko gailurra</p>	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa

- Teide mendia da (3.718 m). Garai hartan inork igotako garaienetakoa zen, eta 1737an <i>New Geographical Dictionary</i> -k 24.000 metroko garaiera bitxia ematen zion.			
Gambia edo Senegal ibaiak - Gambia ibaia Cabo Verdetik 200 km-ra dago hegoalderantz, eta Senegal 200 km-ra iparralderantz.	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<i>ingenio</i> - Jatorrizkoan era honetara.	Argibide teknikoa	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	Itzulezintasun oharra
San Augustino - San Roque edo Colcanhar lurmuturra izan daiteke, Brasilgo itsasaldearen ekialdean dagoena.	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
Fernando de Noronha - Brasilgo uhartea, lehen aipaturako lurmuturretik 400 km ingurura dagoena.	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<i>den wild Zee</i> - Holanderaz, «Itsaso basatia».	Argibide linguistikoa	Termino edo esatera bat azaltzea	Ohar linguistikoa
<i>Ezusteko pozak, atsekabeak bezala</i> / Hasieran nahasgarriak dira - Agian Defoeren egokitzapen bat da Shackerley Marmion (1632) idazlearen <i>Holland's Leaguer</i> komedian azaltzen diren hitzena «Great joys, like griefs, are silent» («poz handiak, atsekabeak bezala, isilak dira»).	Argibide teknikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Ohar esplikatiboa
rake - Hitz arabiarra jatorriz, zenbait edari bizi aipatzeko erabiltzen dena.	Argibide linguistikoa	Termino edo esatera bat azaltzea	Ohar linguistikoa

<p>bizpahiru foka ikustean</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dirudi inguru horietan fokak ikustea oso egiantzekoa denik. Beharbada animalia horien aipamena Juan Fernández marinel espainiarraren idatzietatik (1530-1599) hartu du. 	Argibide teknikoa	Sorburu testuko akats bat zuzentzea	Iruzkin oharra
<p>Europako garagarraren mota berekoak, Ingalaterrakoak bezalakoak ez izan arren</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dirudi desberdintasun handirik dagoenik Europako eta Ingalaterrako garagarraren artean. 	Argibide teknikoa	Sorburu testuko akats bat zuzentzea	Iruzkin oharra
<p>Leadenhall</p> <ul style="list-style-type: none"> - Haragi eta ehiza saltoki zen Londresko merkatua, berunezko teilatua zuelako izen hori zeramana. 	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
<p>Salomonek horrelakoren bat aurkitu ote zuen Jerusalemgo tenplua egiteko</p> <ul style="list-style-type: none"> - Salomonen tenpluaren xehetasunak Kronikak 2ko lehen atalean eta Erregeak I-eko 5.ean eta ondorengoetan azaltzen dira. 	Argibide teknikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Ohar esplikatiboa
<p>«Zuen eta gure artean leize handi bat dago»</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lukasen ebanjelioa, 16, 26. 	Argibide teknikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Ohar esplikatiboa
<p>Ez nuen haragiaren, ez begien gutziarik, ezta bizitzaren arrogantziarik ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - San Joanen epistola, 2, 16. 	Argibide teknikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Ohar esplikatiboa
<p>Piragua</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Periagua</i> jatorrizkoan. 	Argibide teknikoa	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	Itzulezintasun oharra
<p>lehorrera</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Terra firma</i> jatorrizkoan. 	Argibide teknikoa	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	Itzulezintasun oharra

Ehun mila moidore - Diru portugaldarra, 27 txelin inguru balio zuena.	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
Idatzi Santuetan esaten den bezala, haientzat lege zen argiaren kontra - Erromatarrak 9, 20-21.	Argibide teknikoa	Aipu edo erreferentzia bibliografikoak egitea	Ohar esplikatiboa
Horikai - Egurra horixka duen Hegoameriketako zuhaitza (<i>Chlorophora, Maclura</i>).	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
Eztai - Edozein masta, tantai edo haga-gain sostengatzen duen soka.	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
Abenketatik - Mastaburuetan lotzen diren eta bertatik ontziaren brankara jaisten diren sokaburuak edo sokak.	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa
38.892 <i>crusados</i> -ekoa - Era horretan idatzia jatorrizkoan, Brasilgo cruzeiro txanponari dagokion hitza.	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Itzulezintasun oharra
<i>Padre</i> - Era horretan idatzia jatorrizkoan.	Argibide teknikoa	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	Itzulezintasun oharra
Start - Ingalaterra hegoaldeko itsasertzeko lurmuturra.	Argibide teknikoa	Izen propioak azaltzea	Ohar esplikatiboa
Calais-tik Dover-era - Frantzia eta Britainia Handiaren artean dagoen Mantxako itsasartea zeharkatzeko biderik motzena.	Argibide teknikoa	Termino edo esaera bat azaltzea	Ohar esplikatiboa

Iruñera - Pampeluna jatorrizkoan.	Argibide teknikoa	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	Iruzkin oharra
Hondarribira - Fontarabia jatorrizkoan.	Argibide teknikoa	Itzulpen zalantzarri bat justifikatzea	Iruzkin oharra